



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 14a

107. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu- neurri batzuk hartzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Foru Diputazioak, 2002ko azaroaren 11n hartutako erabakiaren bidez, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk har-tzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz bideratzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat abiara-ziko da, 2002ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erre-gelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentari-ek zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari. Zuzenketak mantentzeko epea irizpena onetsi eta ondorengo eguneko eguerdiko hamabietan buka-tuko da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu- neurri batzuk hartzekoa

Foru Komunitateko gizarte egoera azterturik, nabarmena da familien, ezinduen eta alargunen interesak babesteko beharra, populazioaren zahartze larria eta jaiotze-tasa urriak ahaztu gabe, gero batean arriskuan jartzen ahal baitute gure ekonomiaren hazkunde produktiboa. Beraz, neurri zentzuduna izango litzateke jarduketa publikoak egitea egoera horren ondorioak arintzeko. Horretan guztian kontuan hartu behar dira aurrekontuen egonkortasuna eta kontu publikoen saneamendua bilatzen dituzten helburuak, zergen bidez beharrezko baliabideak bereganatzeko printzipio ezinbestekoa izan behar duelako.

Aurreko lerroaldean esandakoa aintzat hartu-rik, Foru Lege proiektu honek xede du hazkunde ekonomikoaren erritmoa, enpresen lehiakortasuna eta enplegua areagotzea. Kasuan kasuko zehazpen eta nabardura batzuk alde batera utzita, esan daiteke orohar jendearen ustez zuzeneko zergak zerbait gutxitzea hazkunde ekonomikorako pizgarria dela eta, halaber, herritarren gizarte ongizatea hobetzen laguntzen duela.

Bestetik, gure ingurune ekonomiko eta geogra-fikoko zerga sistemak asko jaitsi dituzte, orohar, kapitalaren etekinen gaineko zerga tipoak, hots, aurreztearen gaineko zerga-arlokoak eta enpre-sek ordaindu beharreko zergei buruzkoak. Batzuek zerga lehiakortasun estalia deritzoten egoera hori kontuan hartu behar da, zerga arra-zoiak direla-eta bazterkeria sorrarazten ahal baitu.

Zerga arloko neutraltasuna gardentasun fiska-laren desagerpenaren eta errenta egozpeneko araubideko entitateak erregulatzeko egindako hobekuntza teknikoek bidez lortu nahi da. Neutral-tasunerako aurrerapauso honek, baliabide ekono-mikoak esleitzean efizientzia hobetzeaz gain, ez ditu bazter uzten beste printzipio konstituzional

batzuk, hala nola, zergen orokortasuna eta berdintasuna.

Azkenik, tributuak kudeatu eta aplikatzearen ondorioz eskuratutako esperientziak gomendatzen du neurri tekniko batzuk hartzea sistematizazioa eta arauen argitasuna handitzeko.

Azken batez, honako hauek dira zerga berritze honen ezaugarri nagusiak: Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga dela-eta pagatu beharrekoaren murrizketa, zerga arloan familiek eta ezinduek jasotzen duten tratamendua hobetzea, aurrezki produktuen tratamendu neutralean aurrera egitea, aurreikuspen eta aurrezki sistematarako bide berriak garatzea aseguratutako aurreikuspen planak sortuz, gero eta maizago gertatzen den langilearen laneko eta familiako eginbeharrak batera eraman beharra. Azken puntu honetan arreta berezia eskaini behar zaie amatasunari, adopzioari eta hiru urtetik beheitiko seme-alabei.

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga eraginkorragoa eta neutralagoa lortzeaz gain, beste helburu bat ere bada, zerga hori sinplifikatzea hain zuzen, subjektu pasiboek autolikidazioa errazago egin ditzaten eta iruzurraren kontrako borroka sendotzeko baliabide gehiago erabili ditzagun.

Foru Lege proiektu hau hamar artikulutan, dagozkion xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta azken xedapenetan dago egituratuta.

Lehenbiziko artikuluan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen alderdi batzuk aldatu dira.

Zergaz salbuetsitako errentekin zerikusirik duten gai batzuk aldatu dira, terrorismoaren kontrako borroka dela-eta emandako domina eta kondekorazioen ondoriozko pentsioak ere zergaz salbuetsiz, terrorismo ekintzengatik jasotako kalteak arintzeko ematen diren prestazioekin berdintzeko.

Errenta egozpeneko araubideko entitateen kasuan, aipatu Foru Legearen 11. artikuluan haien gaineko puntu batzuk kendu dira eta Lege horren 47, 48, 49 eta 50. artikuluetan sartu, egoziagoa baita hauetan kokatzea eta ez aurreko horretan orain arte bezala.

Entitate horiei dagokienez, haien erregulazioa argitu da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudia aplikatuko baitzaie. Hala ere, haien gaineko kontrola hobea izanen da, informazio aitortpen bat aurkezteaz gain, beren jarduera ekonomikoaren etekinen atxikipena jasaten baitute. Horretarako, atxikitzaileak aplikatu beharreko arauak zehaztuko dira.

Aseguratutako aurreikuspen planen figura sortu da, Pentsio planen ezaugarri beretsuekin. Haien bidez lortutako prestazioek lan etekinen kontsiderazio bera izanen dute tributaziorako.

Estatuko araudiari jarraikiz, aseguratutako aurreikuspen plan hauek ondoko ezaugarriak izanen dituzte:

a) Zergadunak hartzailea, aseguratua eta onuraduna izan beharko du era berean. Zergaduna hilez gero, prestazioak jasotzeko eskubidea sortzen ahalko da Pentsio plan eta fondoei buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legean ezarritakoaren arabera.

b) Lege horren 8.6 artikuluan aurreikusitako egoerak baino ez dira ordainduko.

c) Aseguru horiek nahitaez interes tasaren bermea eskaini beharko dute eta teknika aktuarialak erabili.

d) Polizako baldintzetan era zehatz eta agerikoan adieraziko da aseguratutako aurreikuspen plana dela.

Lanaren eta kapital higiezinaren etekinei dagokienez, murrizpen aplikagarria ehuneko 30etik ehuneko 40ra igoko da bi urte baino gehiagoko sortze aldia duten etekinen kasuan, bai eta erregelamenduaren arabera modu nabarmen irregularran jasotakotzat jotzen direnen kasuan ere.

Zerga-gardentasuna desagertu eta ondare sozietateak sortzen dira. Azken hauek Sozietateen gaineko zergan tributatu dute, baina betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga erregulatzen duen araudiari jarraikiz. Profesional eta artisten sozietateek Sozietateen gaineko Zergako araubide orokorrean tributatu dute, eta Balore eta ondasunak izateko sozietateek, berriz, Ondare sozietateen araubide bereziari jarraikiz. Azken finean, hauxe lortu nahi da: ondasun ez-lotuek (baloreak eta ondasun higiezinak batez ere) erosteko, berdin izatea pertsona fisiko batek zuzenean edo ondare sozietate baten bidez egitea.

Kapital higigarrien etekinei dagokienez, murrizpen aplikagarria ehuneko 40ra igoko da bi urte baino gehiagoko sortze aldia duten etekinen kasuan, bai eta erregelamenduaren arabera modu nabarmen irregularran jasotakotzat jotzen direnen kasuan ere.

Beste aldetik, bizitza aseguruetako kontratuen tratamendua erraztu da, haien tributazioa hobetu den bitartean. Murrizketa portzentaje bakar bi ezarri dira:

a) % 40ren murrizketa, sortze aldia bi urte baino gehiagokoa bada edo balioezintasun kasuetan.

b) % 75aren murrizketa, sortze aldia bost urte baino gehiagokoa bada, edo erregelamenduaren arabera finkatutako balioezintasun maila altuko kasuetan.

Enpresa edo lanbide jardueren ondoriozko etekinei dagokienez, gastu kengarriaren gaineko kontzeptu berri bat sortu da, haien zuzeneko estimazioa egiteko. Horrela bada, kengarriak izanen dira subjektu pasiboak pagatutako gaixotasun-aseguruen primak, bera eta bere ezkontidea estataltzeko parteari dagozkionak, bai eta ondorengoa, betiere horiek direla-eta murriztapen eskubidea badu gutxiengo familiarrengatik. Gehienez ere 500 euro kenduko dira aipatutako pertsona bakoitzeko.

Ondare handitzeak direla-eta, erreserbetako kapital murrizketa arautu da, hots, erreserba horiek kapitalizatu egin ziren garai batean eta gero banatu, kapital murrizketa sortuz. Kasu horretan, dibidenduen banaketa arrunta balitz bezala tributatu dute, dibidenduen ezarpen bikoitzagatiko kenkarirako eskubidea izanen dutela.

Espainiako eta Europako Batasuneko baloreen bigarren mailako merkatuak ere parekatu dira.

Ondare sozietateetan akzioak eta partaidetzak eskualdatzeko, kontuan hartuko dira erosketaren balioa eta titulartasun balioa, zehaztapen batzuekin.

Errenta egozpeneko araubideko entitateen definizioa ondokoan aldatu da bereziki: atzerrian eratu diren entitateendako irizpide erabakiorra izanen da haien funtzionamendua erregulatzen duen araudiko Estatuan edo lurraldean Sozietateen gaineko Zerga berdinari edo antzeko bati lotuta egotea.

Errenta egozpeneko araubideko entitateek bazkide, oinorde, komunero edo partaide bakoitzari esleitzen dioten errentaren izaera errenta sortzen duen jarduera edo iturriaren arabera izanen da.

Halaber, arautzen da errenta egozpeneko araubideko entitateen bazkide, oinorde, komunero edo partaide bakoitzari esleitzen ahal zaion errentaren kalkulua, bai eta entitate horiekin egin beharreko konturako ordainketak ere. Lehenik eta behin, ezinbestekoa izanen da entitate horiei ordaindutako errentei murrizpenak edo konturako sarrerak aplikatzea. Konturako ordainketak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga erregula-

tzen duten arauari jarraikiz eginen dira, kontuan hartu gabe kide guztiak edo baten bat Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak edo Ez-egoiliarren Errentaren zergapekoak diren.

Ez da bidezkoa izanen ondarearen gehikuntza edo murrizpena kontuan hartzea, baldin eta Inbertsio kolektiboko instituzioetan egindako partaidetzen ordainketa edo eskualdatzetik heldu den zenbatekoa, erregelamenduaren arabera ezarritako prozedurari jarraikiz, akzioak edo partaidetzak erosteko edo hartzeko erabiltzen bada izaera hori bera duten instituzioetan. Kasu horretan, hartu edo erositako akzioek edo partaidetzak mantenduko dute eskualdatutako edo ordaindutako akzio edo partaidetzen balorea eta eroste edo hartze data. Dena den, tributazioa honako kasu hauetan baino ez da geroratuko:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen eskualdatze edo ordainketetan, inbertsio fondotzat jotzen badira.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eskuz aldatzean, baldin eta erakundea sozietate gisa eraturik badago, eta eskualdatzen diren akzioetako Inbertsio kolektiboko erakundeetako akziodunak 5.000 baino gehiago badira.

Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an eman 85/611/CEE Zuzentarauak gobernatzan dituen inbertsio kolektiboko erakundeetako kide edo partaideei ere aplikatuko zaie araubide hori. Aipatu erakundeak Zergari buruzko Foru Legearen 52. artikuluko 4. idatz-zatian aipatutakoez beste izanen dira, eta egon beharko dute eraturik Europako Batasuneko kidea den Estaturen batean, bai eta egoitza bertan izan ere. Halaber, Balore Merkatuko Komisio Nazionalako erregistro berezian egon beharko dute sartuta, egoitza Espainian duten entitateek merkaturatzeko. Beraz, zerga alorrean, parekatu egin dira Europako Batasuneko inbertsio kolektiboko erakunde guztiak.

Familiei eta ezinduei babes emateari dagokionez, berrikuntza garrantzitsuak gertatu dira:

1.-Gutxiengo pertsonala 800 euro igoko da subjektu pasiboak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu, eta 1.800 euro subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu. Minusbaliotasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa duten ezinduendako, igotera 1.960 eurokoa izanen da; eta 6.960 eurokoa, minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa dutenendako.

2.-Aurreko ahaide bakoitzarengatik jaso beharreko gutxiengo familiarrean familiaren kargura egotearen baldintza kendu da, eta elkarrekin bizi-

tzearena, berriz, mantendu. Urteko gehieneko errentak kalkulatzeko salbuetsiak baztertu behar dira.

3.-Gutxiengo familiarra ondorengoengatik nabarmen igo da hirugarren seme-alabarengandik aitzina:

- 1.535 euro urtean, lehen eta bigarreneko.
- 2.250 euro urtean hirugarreneko.
- 3.000 euro urtean laugarreneko.
- 3.500 euro urtean bosgarreneko.
- 4.000 euro urtean seigarren eta hurrengoetako.

Aurreko gutxiengo horiek alde batera utzita, zenbateko horiek aplikatzeko eskubidea ematen duen hiru urte baino gutxiagoko ondorengo bakoitzeko, beste 1.200 euro murrizten ahalko dira urtean.

4.-Ezindua den ondorengo edo aurreko ahaide bakoitzeko jaso beharreko gutxiengoei dagokienez, aurreko gutxiengoetan ezarritako zenbateko ez gain, 1.960 euroko murrizketa aplikatuko da minusbaliotasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa duten ezinduendako, eta 6.960 eurokoa urtean, minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa dutenendako. Pertsona lagunduen kasuan, zenbateko hori urtean 1.960 eurora igoko da.

Foru Lege proiektuak zergaren tarifa berria prestatu du. Tarte kopurua zortzitik zazpira murriztu da; gehiengo tipoa, % 47tik % 44ra; eta gutxiengoa, % 15etik % 14ra. Likidazio oinarri berezirako % 15eko tasa ezarri da.

Murrizketa ohiko etxebizitzarengatik nabarmenki aldatu da:

a) Alde batetik, % 18ko portzentaje berezi hori bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateei aplikatzen ahalko zaie. Orain arte portzentaje hori hiru kideetik gorako familia unitateei soilik aplikatzen ahal zitzairen.

b) Bestetik, % 30eko portzentajea aplikatuko zaie abenduaren 31rako familia ugarizat hartuazateko baldintzak betetzen dituzten familia unitateei.

Etxebizitza alokatzeagatik kenkaria ere aldatu da. Estatuko arauetan ez bezala, Foru Komunitatean indartu nahi da alokatzeko etxebizitzaren merkaturia, maizterrei lagunduz. Modu horretan Ekonomi eta Gizarte Aferen kontseiluaren gomendioari kontu egin zaio eta neurri aurrerakoiagoa hartu da. Maizterrendako kuotetako kenkariak mantzen

tzear gain, errentaren mugak igo dira, bai bana-kako aitorpenean bai baterakoan.

Lanarengatik kenkariari dagokionez, haren aldeko aldaketak egin dira.

Oro har, lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek 685 euro kendu ahal izanen dituzte.

Langile aktibo gisa lan etekinak eskuratzen dituzten subjektu pasiboendako, % 33ko edo handiago eta % 65eko baino txikiagoko minusbaliotasuna aitortzen badute, kenkaria 1.085 eurokoa izanen da; eta minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa badute, aldiz, 3.000 eurokoa.

Alarguntasun pentsioengatik kenkaria sortu da, zergako kuota diferentzian aplikatzekoa. Kenkari hori izaten ahalko dute alarguntasun pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek, betiere Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren 50. artikuluan aipatutako osagarriak eskuratzeko eskubidea badute. Alarguntasun pentsioari muga ezarri zaio goitik, "gutxiengo osagarria" bazter utzita. Kenkaria, orohar, 720 eurokoa izanen da.

Aratu da Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren ahalmena autolikidazio proposamenak egiteko. Subjektu pasiboak proposamen hori baieztatzen ahalko du, baldin eta uste badu zerga arloan duen egoera ongi islatzen dela zerga horri doakioenez. Hala bada, autolikidaziorako proposamena autolikidazio bilakatuko da.

Ondarearen gaineko zergaren 2. artikulua hainbat aldaketa eragin ditu azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen artikuluetan.

Alde batetik parekatu dira Espainiako eta Europako Batasuneko baloreen bigarren mailako merkatuak, eta bestetik, 33.1 artikuluan b) letra aldatu da zerga gardentasuna desagertzearen eta ondare sozietateak sortzearen ondorioz.

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea dela-eta, aldaketek xede dute, batez ere, zerga gardentasuneko araubidearen desagertzearen egokitzea.

Pertsona ezinduen lan kontratazioa sustatzeko, langile horiek kontratatzeagatik kenkaria handitu da.

X. tituluko II. kapituluaren ondare sozietateen araubidearen erregulazioa sartu da. Sozietate horiek ez dizkiete partaideei egotziko likidazio oinarriak, eta zerga oinarria zehaztuko dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren arauari jarraikiz, zuzeneko estimazio arruntaren bidez.

Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Legearen X. tituluko IV. kapitulua aldatu da, araubide berezi bategilea sortu baita interes ekonomiko batasunak, bai espainiarrak bai europarrak, eta enpresen aldi baterako elkarteak arautzeko.

Sozietate gardenen desagerpenaren gaineko bi xedapen iragankor erantsi dira. Xedapen horietan zehaztu dira sozietate horiek dituzten aukerak. Hona hemen:

a) Tributatzan jarraitzea desegin eta likidatu gabe. Ondorioz, ondare sozietateen araubidepekoak izanen dira (aurretik balore edo ondasunak izateko sozietateak zirenen kasuan), edo Sozietateen gaineko zergaren araubidepekoak (lehen profesional, artista eta kirolarien sozietateak zirenen kasuan).

b) Erabakia hartzea haien desegite eta likidazioarako zerga araubide berariazko baten bidez.

4. artikulua aldatu du Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina .

Batetik, administrazio emakidentzako tasa aplikagarriaren aipamena aldatu da eta, bestetik, fusio edo banaketa eragiketen kontzeptua zabaldu da, baloreen trukaketa eta diruzkoak ez diren ekarpen jakin batzuk ahaztu gabe.

Testu bateginaren azken zatia berregituratu da beharkizun formalen eta itzulketen edukia bereizteko. Halaber, beste bi kapitulu erantsi dira zergaren kudeaketaren eta arau-hauste et zehapenen gainekoak.

5. artikuluan Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko 1970eko apirilaren 10eko Araua aldatu da. Helburua da familia enpresei laguntza ematea, bai enpresa indibidualen bai profesionalen negozioen eskurapenak salbuetsiz.

6. artikuluan Tributuak buruzko abenduaren 30eko 13/2000 Foru Lege orokorraren alderdi batzuk aldatu dira.

Alde batetik, aitopen-likidazioak edo informazio aitopenak euskarri informatikoan aurkeztu behar dituzten subjektu pasiboek aitopen horiek egiteko erabili dituzten programen eta fitxategien kopia gorde beharko dute.

Bestalde, egiaztapen eta ikerketa prozeduren ondorioz irekitzen diren zehapen prozedurak ezin izanen dira hasi hiru hilabete igaro badira egiaztapen eta ikerketa prozedura horien likidazioa jakinarazi edo jakinarazitzat jo zenetik.

7. artikuluan azaldu dira Jarduera ekonomiko-en gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tari-

fetan eta jarraibidean egindako aldaketa batzuk. Adierazgarrienak hauek dira: lehen ataleko hainbat talderen aldaketa eta berariazko epigrafe baten sorrera telefonia mugikorreko operadoreendako. Era berean, hemendik aurrera "langile kopurua" kontzeptua ez da faktore erabakiorra izanen zergako kuotaren parte bat kalkulatzeko.

Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei dagokienez, aldaketa gutxi egin dira. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren esparruan berriro eskuratu da, hilabetean, lanbidearteko gutxieneko soldatetik gorako errentarik ez izateko baldintza, enplegu-eskatzaille gisa agertzen direnek azterketa eskubideen tasarik ordain ez dezaten.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren esparruan ehizarako baimenak emateko tasa gaurkotu da, eta tasen barrenean beste bi zerbitzu sartu dira Osasun Departamentuan eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan.

Foru Lege proiektu honek aldatu du ere Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalari buruzko 3/1995 Foru Legea, "publiko" hitzaren esanahia mugatzeko, arauak erabiltzen baitu erregistro horren izaeraz aritzeko. Aldaketa hori Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren iraungipenaren ondorioz egin da.

10. artikulua xede du Estatuko araudian jasotako "2004, Done Jakueren urte saindua"-ren inguruko onura fiskalak Foru Komunitatean ere aplikatzea, 2003ko urtarrilaren 1etik 2004ko abenduaren 31ra arte.

Lehen xedapen gehigarriak urtean 1.200 euroko dirulaguntza ezarri du hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiendako. Langileek laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotza-tasa sustatzeko ezarritakoekin bat etorriko da, laguntza horiek erregulatzen dituen 242/2000 Foru Dekretuaren arabera. Laguntza emanen da, betiere, haurra jaio edo adoptatu eta egun horretatik aitzina, 3 urte bete arte.

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen manu batzuk, ondotik heldu direnak, honela geldituko dira:

Bat.7.a) artikuluko laugarren eta bosgarren lerroaldeak.

“Halaber, salbuetsiak egonen dira Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko Entitate Kudeatzaileek emaniko langabezi prestazioak, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan arautua dagoen ordainketa bakarraren modalitatean eginak direnean eta, beti ere, arau horretan aurreikusitako xede eta kasuetara zuzenduta badaude.

Aurreko paragrafoan aurreikusten den salbuespenak ondoko baldintzak izanen ditu: subjektu pasiboak, sozietate laboral batean edo lan elkartuko kooperatiba batean integratu bada, akzioari edo partaidetzari bost urtetan eutsi behar ko dio, eta langile autonomoa bada, denbora berean eutsi jarduketari.”

Bi. 7.d) artikulua.

“d) Terrorismo ekintzengatik jasandako kalteak arintzeko aparteko prestazio publikoak, eta terrorismoaren kontrako borroka dela-eta emandako domina eta kondekorazioen ondoriozko pentsioak.”

Hiru. 7.j) artikulua.

“j) Erakunde publikoek emandako zenbatekoak, 65 urtetik gorakoak edo ezintasunak dituztenak etxean hartzeagatik, bai eta instituzio publikoek emandako diru-laguntzak ere % 65eko baino gehiagoko minusbalioetasuna edo hirurogeita bost urte baino gehiago dituzten pertsonendako beren egonaldia erresidentzietan edo eguneko zentroetan ordaintzeko, baldin eta haien errentek lanbide-arteke gutxiengo lansariaren bikoitza gainditzen ez badute.”

Lau. 7.k) artikulua.

“k) Norberaren kargupeko seme edo alaba bakoitzarengatik jasotako prestazioak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategineko II. tituluko IX. kapituluaren araututakoak (ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu hori), bai eta Administrazio Publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba minusbaliatu bakoitzarengatik ezarritako famili laguntza.

Halaber, Gizarte Segurantzako araubide publikoen eta klase pasiboen kargura emandako zurtasun-pentsioak eta ondasun pasiboak, eta zurtasuna dela-eta jasotako edozein prestazio publikoa.

Salbuetsirik egonen dira, halaber, ekainaren 27ko 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan araturiko prestazio ekonomikoak.”

Bost. 7.o) artikulua.

“o) Giza immunoeskasiaren birusak jota egoteagatik jasotzen diren edozein motatako laguntzak, maiatzaren 28ko Legegintzako 9/1993 Errege Dekretuan araututakoak.

Horretaz gain, ekainaren 5eko 14/2002 Legearen 2. artikuluan araututako laguntza ekonomikoak.”

Sei. 11. artikulua.

“11. artikulua. Errenten egozpena.

1. Sozietate zibilei dagozkien errentak, nortasun juridikoa izan ala ez, bai eta jaraunspen banatugabeei, ondasunen komunitateei eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 25. artikuluan aipatutako gainerako entitateei dagozkienak ere, ondokoei egotziko zaizkie hurrenez hurren: bazkide, oinorde, komunero edo partaideei, Foru Lege honen III. tituluko II. kapituluaren 5.1 idatz-zatian ezarritakoari jarraituz.

2. Errenta egozpeneko araubidea duten entitateek ez dute Sozietateen gaineko Zergarik ordainduko.

3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, zerga horretako subjektu pasiboak izan eta aurreko 1. idatz-zatian aipatutako entitateei ez zaie errenta egozpeneko araubidea aplikatuko.”

Zazpi. 14.2.a) artikulua.

“4. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru-kontratuen onuradunek jasotako prestazioak, horiek egindako ekarpenak, hein batean behintzat, enpresa edo lanbide-jardueren etekin garbia finkatzeko garaian gastu kengarritzat jo ahal izan badira, edo Zerga honen zerga-oinarrian murriztu baldin badira. Prestazio horiek zerga-oinarrian sartuko dira, hartutako zenbatekoak gainditzen baldin baditu zergako zerga-oinarrian murriztu edo minoratu ezin izan diren ekarpenak, Foru Lege honen 55.1 artikuluko 2, 3 eta 4. puntuetan aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituztelako.”

Zortzi. 14.2.a) artikuluari 6 zenbakiko idatz-zatia gehitzea.

“6. Aseguratutako aurreikuspen planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak.

Foru Lege honen ondorioetarako, aseguratutako aurreikuspen plantzat hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 9ko 40/1998 Legearen eta Tributuei buruzko bestelako Arauetan erregulatutakoak.”

Bederatzi. 15.1. artikuluari bigarren lerroalde bat eranstea.

“Errenta ordaintzaileak subjektu pasiboari eskudirutan pagatzen badio, azken honek ondatsunak, eskubideak edo zerbitzuak eskura ditzan, errenta hori diru-errentatzat hartuko da.”

Hamar. 15.1.e) artikulua.

“e) Aseguru-kontratuaren edo antzeko besteren baten arabera enpresak ordaindutako primak edo kuotak, lan-istripuen aseguruena edo erantzukizun zibilarena alde batera utzita.

Era berean, ez dira gauzako lan etenkitzat hartuko aseguru entitateei eritasunerako ordaindutako primak edo kuotak, muga hauen barnean baldintza hauek betetzen badira:

a’) Eritasunerako aseguruak langilea bera hartzea, ezkontidea eta ondorengoak ere har ditzakeela.

b’) Ordaindutako prima edo kuotek urtean 500 eurotik gora ez egitea arestiko a’) letran aipatutako pertsona bakoitzeko. Zenbateko horien gainetik dagoena gauzako ordainsaria izanen da.”

Hamaika. 15.2.b) artikulua.

“b) Langileriaren zerbitzu sozial eta kulturaletara zuzendutako ondasunen erabilera. Horretarako, administrazio publiko eskudunak behar bezala homologatutako tokiak eta lokalak hartuko dira aintzat. Enpresek edo enplegu-emaelek erabiliko dituzte beren langileen seme-alabek haur hezkuntzako lehen zikloa bertan egin dezaten.”

Hamabia. 15.2.c) artikulua.

“c) Sozietateek beren akzio edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikulua zentzuan taldea osatzen duen edozein sozietateren akzio edo partaidetzak, jarduneko langile bakoitzari dohain edo merkatu-prezio normalaren azpitik emandako ondasunezko ordainsariak, urtean 12.000 eurotik beherakoak badira. Eta betiere baldintza hauek bete beharko dira:

1. Eskaintza baldintza berberekin egitea enpresako langile guztiei.

2. Langile horiek, haien ezkontide edo bigarren gradura arteko ahaideek enpresan duten baterako partaidetza 100eko 5 baino handiagoa ez izatea. Partaidetza horiek erosteagatik, portzentaje hori gaintitzen baldin bada, 100eko 5a osatu arte emandako partaidetzak salbuetsiko dira bakarrik.

3. Baloreak gutxienez hiru urtez matentzea.

Aurreko 3. idatz-zatian aipatutako epea ez betetzeak aitorten eta likidazio osagarria aurkez-

teko beharra ekarriko du, dagozkion berandutza korrituekin, eta aurkeztu beharko da ez-betetze egunetik kontatzen hasi eta zerga honengatik egin beharreko lehen aitortpena egiteko epearen bukaera eguna bitarte.

Akzioen edo partaidetzen eskualdatzetik ondorioztatutako ondare gehikuntza eta urripenak zehazteko, eskuratze balorea kalkulaterakoan, ondasunezko ordainsaritzat hartu ez den zenbatekoa hartuko da kontuan.”

Hamahiru. 17.2.a) artikulua.

“a) 100eko 40, bi urte baino gehiagoko sortze aldia duten irabazietarako, (periodikoak edo behin eta berriz jasotzen direnak ez badira), eta erregelamenduaren arabera denboran modu nabarmen irregularrean jasotakotzat jotzen direnetarako. Sortze aldia kalkulatzeko, etekin hauek zatika kobratzen direnean, kontuan izan beharko da zatiketaren urte kopurua; hain zuzen ere, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.”

Hamalau. 25. artikulua.

“25. artikulua. Kapital higiezinaren etekin garbia.

1. Etekin osoei ondoko gastu hauen zenbatekoa gutxitu ondoren aterako da kapital higiezinaren etekin garbia:

a) Horiek erdiesteko egindako gastuak. Aipatu ondasun edo eskubideak erosi edo hobetzen inbertitutako besteren kapitalen korrituen zenbatekoa eta horiek finantzatzeko izandako gastuak ez dira, ondasun edo eskubide bakoitzean, ondasun higiezina edo eskubidea lagatzeagatik lortu etekin osoak baino handiagoak izanen.

b) Higiezina eta berekin batera lagatutako gainerako ondasunen amortizaziorako zenbatekoak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmen baten titulartasunetik heldu diren etekinen kasuan, kengarria izanen da, balio-galeraren kontzeptuarengatik eta etekin osoen mugaren barnean, ordaindutako kostuaren zati proportzionala, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

2. Etekin garbi positiboari, erregelamendu bidez denboran modu erabat irregularrean lortutakotzat jotzen direnean, edo haien sortzapen aldia bi urtekoa baino luzeagoa izan baldin bada, 100eko 40 kenduko zaie. Sortze aldia kalkulatzeko, etekin hauek zatika kobratzen direnean, kontuan izan beharko da zatiketaren urte kopurua; hain zuzen ere, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.”

Hamabost. 28. artikuluan, 2. idatz-zatia aldatzea eta 3. idatz-zatia eranstea.

“2. Zerga-oinarrian sartzeko, aurreko ataleko letretan aipatutako etekinak, egoitza Espainian duten entitateetakoak badira, ondoko koefiziente hauekin biderkatuko dira:

a) 1,40 orokorki.

b) 1,25, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.2 artikuluan aipatutako entitateetatik heldu direnean.

c) 1,20, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50. artikuluan 3. zenbakiaren b) letrak aipatzen dituen Sozietate Laboralek atereak badira.

d) 1,00, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legearen 50.5 eta 6 artikuluan aipatutako entitateetatik heldu direnean; ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legean araututako Kooperatiba babestuetatik eta bereziki babestuetatik heldu direnean, jaulkipen primaren banaketatik eta Foru Lege honen 30. artikuluan 1. idatz-zatiko c) eta 2. idatz-zatiko f) letretan azaldutako eragiketetatik heldu direnean.

Halaber, azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legearen 19. artikuluan, edo abenduaren 29ko 22/1993 Legean, edo ekainaren 24ko 5/1993 Bizkaiko Foru Arauetan, ekainaren 26ko 11/1993 Gipuzkoakoetan edo uztailaren 5eko 18/1993 Arabakoetan aurreikusitakoari jarraituz, hoberia emandako edo salbuetsirikio etekinei dagozkien onuren dibidendo edo partaidetzei ere, koefiziente hori aplikatuko zaie; baita lehenbiziko bi ezarpen aldiei dagozkien etekinetatik heldu diren dibidendoei ere, alegia, 3/1996 Bizkaiko Foru Arauetan, 7/1996 Gipuzkoakoetan eta 24/1996 Arabakoetan ezarritako murrizketak aplikagarriak dituzten horiei. Horretarako, erreserba banaketaren kasuan, erreserba horiei ordaindutako lehenbiziko kopuruak aplikatuz hartuko dira.

Etekinak ordaindu aurreko bi hilabeteetan erositako balore edo partaidetzei dagozkien etekinei ere, portzentaje hori aplikatuko zaie, egun horren ondoren eta epe beraren barruan, balore horien edo antzekoen “inter vivos” motako transmisioa egiten denean. Kontseiluak 1993ko maiatzaren 10ean emandako 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialen batean negoziatzera onartu gabeko balore edo partaidetzak direnean, urte bateko epea egonen da.

3. Zerga-oinarri horretan ez dira sartuko etekinetatik dibidenduak edo partaidetzak, artikulua

honen 1. idatz-zatiko a) eta b) letrek aipatzen dituztenak, banatu dituen entitateak etekin horiek lortu dituen zergaldietan ondare sozietateen araubidepean tributatu badu.”

Hamasei. 30.1 artikuluko b), c) d) eta e) letrak.

“b) Berehalako biziarteko errenten kasuan, jaraunspen, legatu, edo antzeko titulu baten bidez “mortis causa” eskuratuak ez direnean, ondoko portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da kapital higikorren etekintzat:

– 100eko 45, hartzailea berrogei urtetik beharokoa denean.

– 100eko 40, hartzailea 40 eta 49 urte bitartekoa denean.

– 100eko 35, hartzailea 50 eta 59 urte bitartekoa denean.

– 100eko 25, hartzailea 60 eta 69 urte bitartekoa denean.

– 100eko 20, hartzailea 69 urtetik gorakoa denean.

Urteko errenta jasotzen duen unean errentadunak duen adinari aplikatuko zaizkio portzentaje horiek.

c) Berehalako aldi bateko errentak direnean, jaraunspen, legatu edo antzeko titulu baten bidez “mortis causa” eskuratuak ez direnean, ondoko portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da kapital higikorren etekintzat:

– 100eko 15, errentaren iraupena bost urte edo txikiagoa denean.

– 100eko 25, errentaren iraupena bostetik gorakoa eta hamar urtekoa edo txikiagoa denean.

– 100eko 35, errentaren iraupena hamarretik gorakoa eta hamabost urtekoa edo txikiagoa denean.

– 100eko 45, errentaren iraupena hamabost urtetik gorakoa denean.

d) Errenta geroratu, biziarteko edo aldi batekoak jasotzen direnean, jaraunspen, legatu edo antzeko titulu baten bidez eskuratuak ez direnean, aurreko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena hartuko da higikorren kapitalaren etekintzat, errenta sortu arte lortutako errentagarritasunaz areagoturik, hau ere erregelamendu bidez zehazten den moduan kalkulatu. Errentak dohaintzaz edo bizien arteko eta dohainezko beste edozein negozio juridikoren bitartez jasotzen direnean, hauxe baino ez da joko

higikorren kapitalaren etekintzat: aurreko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeetatik egokitzen dena urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa horrela izan arren, Foru Lege honen 14.2.a) artikuluan bildutakoek bestelako bizi edo baliezintasun aseguruiei buruzko kontratuen onuradunek errenta moduan jasotzen dituzten erretiro eta baliezintasunagatiko prestazioak zergaren zerga-oinarrian integratuko dira, kapital higikorren etekin gisa eta erregelamendu bidez finkatzen den moduan, kontratuaren indarrez ordaindutako primetatik gora egiten duen unetik, eta aseguru kontratuaren horniduretan inolako mobilizaziorik izan ez bada; halaber, errentak dohaintzaz edo bizien arteko eta dohainezko beste edozein negozio juridikoren bitartez jasotzen direnean, errentak eratu zireneko egungo balio aktuariatik gora egiten dutenean integratuko dira zerga-oinarrian. Kasu horietan ezin dira aplikatu aurreko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak. Araubide hori aplikatzeko, behar-beharrezkoa izanen da aseguru kontratua gutxienez erretiro data baino bi urte lehenago hitzartu izana.

e) Aldi baterako edo biziarteko errentak iraungitzen direnean –errentak jaraunspen, legatu edo antzeko tituluren baten bidez eskuratuak ez badira–, iraungipenaren arrazoia erreskate eskubidea erabiltzea izan delarik, honelaxe aterako da higikorren kapitalaren etekina: erreskatearen zenbatekoari ordura arte ordaindutako errentak gehitu, eta ordaindutako primak eta –idatz-zati honetako aurreko letren arabera– kapital higigarriaren etekintzat tributatu duten kopuruak kendu. Errentak dohaintzaz edo bizien arteko eta dohainezko beste edozein negozio juridikoren bitartez jasotzen direnean, hauxe ere kenduko da: errentak bukatu bitartean pilatu den errentagarritasuna.

Errentadunarentzat ez da etekinik izanen aldi baterako edo biziarteko errentaren iraungipena heriotzagatik gertatu denean.”

Hamazazpi. 30.2.d) artikulua.

“d) Biziarteko edo aldi baterako errentak, kapital ezarpenak izan dituztenean arrazoi, jaraunspen, legatu edo antzeko tituluren baten bidez "mortis causa" eskuratuak direnean izan ezik. Biziarteko edo aldi baterako errentei dagokionez, bizi aseguru kontratuetatik ondorioztatutako berehalakoei alegia, artikulua honetako aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan ezarritako portzentajeak urteko bakoitzari aplikatuz ateratzen dena hartuko da higikorren kapitalaren etekintzat.”

Hemezortzi. 32. artikuluko 2. idatz-zatia eta 3.B) b) idatz-zatiko d') letra.

“2. Etekin garbiak osorik zenbatuko dira, salbu eta positiboak izanik ondoko murrizketa hauetakoren bat aplikatzekoa denean:

a) Sortzeko epea bi urtetik gorakoa denean, edo erregelamendu bidez denboran modu erabat irregularrean lortutakotzat jotzen direnean, 100eko 40ko murrizketa izanen dute.

Sortze aldia kalkulatzean, etekin hauek zatika kobratzen direnean, kontuan izan beharko da zatiketaren urte kopurua; hain zuzen ere, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

b) Bizi aseguru kontratuetatik jasotakoaz ondorioztatutako etekinak, kapital gisa jaso direlarik, honela murriztuko dira:

– Ehuneko berrogei, primak, lortu baino gutxienez bi urte lehenago pagatu dituztenen kasuan, eta ezintasun prestazioetatik heldutakoendako, hurrengo lerroaldean aurreikusitakoa aplikatu behar ez bazaie.

– % 75, primak, lortu baino gutxienez bost urte lehenago pagatu dituztenen kasuan, eta ezintasun prestazioetatik heldutakoendako, erregelamenduaren arabera zehaztutako baldintza eta mailatan.

Portzentaje hori bera aplikatuko zaio kapital moduan kontratu horietatik jasotakoaz ondorioztatutako etekin osoari, lehen prima ordaindu zenez geroztik zortzi urte baino gehiago igaro direlarik, baldin eta kontratuaren iraupenean zehar ordaindutako primek halako aldizkakotasun eta erregulartasun bat izan badute; betiere, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

c) Erregelamenduaren arabera bide erraztuak ezartzen ahalko dira aurreko letren aipatutako murrizpenak aplikatzeko.

d) Idatz-zati honetan aurreikusitako murrizketak ezin zaizkie aplikatu Foru Lege honen 30. artikuluko 1. idatz-zatiko b), c) eta d) letretan eta 2. idatz-zatiko d) letren aipatutako prestazioei, errenta moduan jasotzen badira.

Idatz-zati horretan aipatutako murrizketak aplikatuko zaizkie bizitza-aseguruetatik egindako hein bateko berreskurapenei. Hala ere, urte natural baten barranean berreskurapen horietako hiru baino gehiago egiten badira, zenbateko horretatik goitikoek ez dute eskubiderik izanen inolako murrizketarik jasotzeko.

Ondoko kasuetan ez da inolaz ere murrizketarik aplikatuko: polizan edo aseguru-hartzaileak aseguru-etxeari idatzitako agindu batean leheneztitako berreskurapen batzuk aurreikusten direnean.”

“d) Hartzaileak zilegi izanen du soilik banandutako aktibo multzoen artetik hautatzea zeinetan inbertitu behar duen erakunde aseguratzaileak aseguruaren hornidura matematikoa, baina inoiz ez du zilegi izanen esku hartzea hornidura horiek zein aktibo jakinetan inbertitzen diren erabakitze-ko, multzo banandu bakoitzaren barrenean.

Kontratu mota horietan, aseguru-hartzaileak edo aseguruak, polizaren zehaztapenei jarraikiz, inbertsio kolektiboko erakundeetatik edo banandutako aktibo multzoetatik bat aukeratzen ahalko dute, aseguru-hartzaile edo aseguru bakoitzera-ko banakako zehaztapenik egin gabe.

Idatz-zati honek aipatzen dituen baldintzak kontratuak indarrean iraun arteko guztian bete beharko dira.”

Hemeretzi. 34.6. artikulua.

“6. Jardueren etekin garbiek bi urtetik gorako sortze aldia dutenean eta denboran zehar modu irregular nabarmen batez lortu direla erregelamendu bidez jotzen denean, 100eko 40 murriztuko da.

Sortze aldia kalkulatzean, etekin hauek zatika kobratzen direnean, kontuan izan beharko da zatiketaren urte kopurua; hain zuzen ere, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.”

Hogei. 35.1 artikulua.

“1. Ez dira gastu kengarrizat joko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 24.2 artikuluan aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresario edo profesional beraren gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, Foru Lege honen honen 55. artikulua 1. idatz-zatian ezarritakoari utzi gabe.

Hala ere, gastu kengarrizat joko dira norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabeko profesionalek sinatutako aseguru kontratuengatik ordaindutako kopuruak, Aseguru Pribatuaren Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen bosgarren xedapen iragankorreko 3. idatz-zatian eta hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharra betetzeko, aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezko lanak egiten dituztenean, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen egoeretatik arduratzea helburu duen zatian, urteko 3.005 euroko mugaz.”

Hogeita bat. 35. artikuluar 5 zenbakiko idatz-zatia gehitzea.

“5. Subjektu pasiboak berarendako, ezkontidearendako eta gutxiengo familiarra dela-eta murrizketarako eskubidea ematen dioten ondorengo-

dako egin duen gaixotasun-aseguruaren primak gastu kengarrizat joko dira haien etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubidearen arabera zehazteko. Aipatutako pertsona horietako bakoitzeko 500 euro kentzen ahalko dira gehienez.”

Hogeita bi. 36.1.4 artikulua.

“4. Zenbatespen objetiboaren araubidea aplikatu ahal izanen zaie errentak egozteko araubidean dauden entitateei.

Zenbatespen objetiboaren araubidea ezin izanen zaie aplikatu enpresa jardueri edo profesionalen jardueri, hein batean edo bere osotasunean, Espainiatik kanpo egiten badira.”

Hogeita hiru. 39.4.a) artikulua.

“a) Kapital murrizketetan. Kapital murrizketak, xedea duena duelarik, balore edo partaidetzak amortizatzea eragiten duenean, amortizatutaz joko dira eskuratutako lehenak, eta hauen erosketan balioa proportzionalki banatuko da subjektu pasiboaren ondarekoak izaten segitzen duten gaintzeko balore homogeneoen artean. Kapital murrizketak ez dienean subjektu pasiboaren balore edo partaidetza guztiei maila berean eragiten, eskuratutako lehenei buruzkotzat joko da.

Kapital murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, honen zenbatekoak edo jasotako ondasun edo eskubideen merkatuko ohiko balioak gutxitu egiten du ukitutako baloreen edo partaidetzen erosketa balioa, aurreko lerroaldeko erregelekin bat, baliogabetu arte. Soberakina gertatzen bada, kapital higiezinaren etekin gisa sartuko da Foru Lege honen 28. artikuluan igorpen primaren banaketarako ezarri moduan, salbu eta murrizpen hori mozkin ez banatuetatik sortutako kapitalarena bada. Kasu horretan, kontzeptu hori dela-eta jasotako zenbateko guztiek tribututako dute artikulua horren 1. idatz-zatiko a) letran agindutakoaren arabera.

Ondorio horietarako ulertuko da kapitalaren murrizpenak, haien helburua edozein dela ere, lehenik eta behin ukitzen dutela mozkin ez banatuetatik sortu ez den kapitalaren parte, baliogabetu arte.”

Hogeita lau. 39.6 artikuluko f) eta g) letrak.

“f) 1993ko maiatzaren 10eko Kontseiluaren 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatio gai diren balio edo partaidetzak eskualdatzetik ondorioztatutakoak, eskualdaketa horien aurretiko edo ondorengo bi hilabeteetan zehar subjektu pasiboak balore homogeneoak eskuratu dituztenean.

g) 1993ko maiatzaren 10eko Kontseiluaren 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziazio gai ez diren balio edo partaidetzak eskualdatzetik ondorioztatutakoak, eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo urtean zehar subjektu pasiboak balore homogeenak eskuratu dituenen.

Aipatutako f) eta g) letretan ezarritako kasuetan, ondare murrizketak integratu egingen dira subjektu pasiboaren ondarean mantentzen diren baloreak eskualdatu ahala.

f) eta g) letretan aurreikusirikoa ez zaie aplikatuko Foru Lege honen 28. artikulua 2. idatz-zatiko leerroaldeak aipatzen dituen eskualdaketei.”

Hogeita bost. 43.1 artikuluko lehen leerroaldea.

“a) Sozietate nahiz erakundearen fondoetan parte hartzearen erakusgarri diren eta 1993ko maiatzaren 10eko Kontseiluaren 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartutako baloreena denean, gehikuntza edo murrizketa eskuraketa eta eskualdaketa balioen arteko aldea kontuan hartuz zenbatuko da, eskualdaketa burutzen den egunean araututako merkatu arautuan honek duen kotizazioak edo, kotizazioa baino handiagoa denean, hitzartutako prezioak finkatua.”

Hogeita sei. 43.1.c) artikulua.

“c) Ondare sozietateen kapitalean akzio edo partaidetzei dagokienez, gehikuntza edo murrizketa eskuraketa eta titulartasun balioaren eta horien eskualdaketa balioaren arteko aldea kontuan izanik neurtuko da.

Horretarako, eskuraketa eta titulartasun balioa honako hauek osatzen dutela ulertuko da:

Lehena. Haien eskuraketa prezioa edo ordaindutako kopurua.

Bigarrena. Sozietateak ondare sozietateen araubidepean aritu zen zergaldietan eskuratutako gizarte etekinen zenbatekoa, benetako banaketarik gabea, eskuratzetik inorenganatzera doan denboran zehar.

Hirugarrena. Baloreak gizarte onurak lortu ondoren eskuratzen dituzten bazkideen kasuan, dibidendu edo partaidetzen zenbatekoan eskuraketa balioa gutxituko da, entitatearen ondare sozietateen araubidean dagoen zergaldietan lortutako mozkinetan.

Zenbatu beharreko eskuraketa balioa Zergaren sortzapen egunaren aurretik itxitako azken

balantzearen ondoriozko teorikoa izanen da gutxienez, behin aktibo ez-ukituen kontabilitate balio garbia Ondarearen gaineko Zergaren eraginetarako izanen lukeen balioaz edo, txikiagoa izanez gero, merkatuan izanen lukeen balioaz ordezkatu ondoren.”

Hogeita zazpi. 43.1 k) artikulua:

“k) Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartu ez diren balioetatik datozen suskripzio eskubideen eskualdaketa dagokionez, lortutako zenbatekoa ondare gehikuntzat hartuko da eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartutako balioetatik datozen suskripzio eskubideak direnean, haien zenbatekoak eskuraketa balioa jaitziko du. Eskubideak zein balioetatik datozen, horien eskuraketa balioa gainditzen badu zenbateko horrek, aldea ondare gehikuntzat hartuko da eskualdaketa egiten den zergaldian.

Aurreko leerroaldean xedatutakoa aplikatuko da sozietate baten akzioen hedatze maila bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartu aurretik areagotzeko xedearekin egiten diren kapital handitzei dagozkien suskripzio eskubideen eskualdaketen kasuan. Onartzeko eskabidea kapital handitzea egiten denetik bi hilabeteko epean ez aurkezteak, onartzeko eskabide hori kentzeak edo hasten denetik bi urte iragan aurretik negoziatutik baztertzeak ekarriko du letra honen lehenbiziko leerroaldean aurreikusiriko tratamenduaren aplikazioa.”

Hogeita zortzi. 45.1. artikulua.

“1. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare gehikuntzak zergapetu gabe utzi ahal izanen dira, betiere eskualdaketa bidez lortutako zenbateko osoa ohiko beste etxebizitza bat erosteko edo zaharberritzeko berrinbertituz gero, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotakoaren gutzizkoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako kopuruari dagokion lortutako ondare gehikuntzaren zati proportzionala baino ez da zergapetu gabe utziko.

Ohiko etxebizitza izanen da Lege honen 62. artikuluko 1. idatz-zatian zehaztutakoa.

Hogeita bederatzia. III. tituluko II. kapituluaren 5. atalaren izendapen berria.

“5. atala.
Errenta egozpena eta
nazioarteko zerga gardentasuna”

Hogeita hamar. III. tituluko II. kapituluaren 5.1 atalaren izendapen berria. 47, 48, 49 eta 50. artikulua beste era batera erredaktatu dira.

“1. azpiatala.
Errenta egozpena.

47. artikulua. Errenta egozpeneko araubideko entitateak.

Errenta egozpeneko araubideko entitateak izanen dira Foru Lege honen 11. artikuluan aipatutakoak eta, bereziki, atzerrian eratuak, izaera juridikoa izan ala ez, haien funtzionamendua erregulatzen duen araudiko Estatuan edo lurraldean Sozietateen gaineko Zerga berdinarean edo antzeko baten subjektu pasiboak ez direnak.

Errenta egozpeneko araubideko entitateei dagozkien errentak bazkide, oinorde, komunero edo partaideei egotziko zaizkie, hurrenez hurren, 1. idatz-zati honetan ezarritakoari jarraikiz.

48. artikulua. Egotzitako errentaren kalifikazioa.

Errenta egozpeneko araubideko entitateen bazkide, oinorde, komunero edo partaide bakoitzari egotzen zaion errentaren izaera izanen da errenta sortzen duen jarduera edo iturriaren arabera.

49. artikulua. Errenta egozgarriaren kalkulua.

1. Bazkide, oinorde, komunero edo partaide bakoitzari egotzi beharreko errentak kalkulatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Errentak Zerga honen gaineko arauari jarraikiz zehaztuko dira, eta 25.2, 32.2.a) eta b) eta 34.6 artikuluetan aurreikusitako murrizpenak ez dira aplikagarriak izanen. Hona hemen berezitasunak:

a) Zergapeko errenta ezarriko da Sozietateen gaineko zergari buruzko araudiari jarraikiz, errenta egozpeneko araubideko entitatearen kide guztiak zerga horren subjektu pasibo badira, edo establezimendu finko baten bitartez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoak badira. Lehenengo kasuan ezinbesteko baldintza izanen da ondare sozietate ez izatea.

b) Establezimendu finkorik gabe jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergape-

koei egotzen ahal zaien errenta kalkulatzeko, Egoitza atzerrian dutenen Errentaren gaineko Zergari eta Zerga Arauei buruzko abenduaren 9ko 41/1998 Legearen IV. kapituluaren ezarritakoari jarraituko zaio.

c) Foru Lege honen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa ez da aplikatuko errenta egozpeneko araubideko entitatearen subjektu pasiboari egotzen ahal zaien errenta kalkulatzeko, baldin eta Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak badira edo Establezimendu finko baten bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoak, edo egoitza finkorik ez badute eta pertsona fisikoak ez badira, eta, halaber, errenta hori ondareko osagaiak eskualdatzearen ondorioz sortutako ondare gehikuntzatik badator.

2. Atzerrian eraturako errenta egozpeneko araubideko entitatearen bazkide, oinorde, komunero edo partaideei, zerga honen edo Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboari, egotzen ahal zaien errentaren parte aurreko lehen arauan xedatutakoaren arabera finkatuko da.

3. Herrialde berean eta iturri beretik lortutako errenta positiboak gaintuzten dituzten errenta negatiboak ez dira kontuan hartuko, errenta horiek baldin badatoz Espainia ez den herrialde batetik eta Espainiak herrialde horrekin ezarpen bikoitza saihesteko Hitzarmenik (informazio trukurako klausularekin) ez badu. Soberakina hurrengo lau urteetan zenbatuko da, 3. arau honetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Errentak bazkide, oinorde, komunero edo partaideei egotziko zaizkie, kasu bakoitzean aplikagarri diren arau edo itunen arabera, eta horiek Zerga Administrazioari sinesgarriro agertzen ez bazaizkie, zati berdinetan esleituko dira.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa galarazi gabe, errenta egozpeneko araubideko entitate horiek enpresa- edo lanbide-jarduerak burutzen badituzte, jarduera horiei atxikitako ekoizpen eta giza baliabideen norberaren konturako antolaketa ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean burutzen dituztenei egotziko zaizkie errenta horiek.

3. Zerga honen subjektu pasiboak diren errenta egozpenaren araubideko entitateek, aitorpenean, ondoko artikuluetan aurreikusitako murrizpenak izaten ahalko dituzte: Foru Lege honen 25.2, 32.2.a) eta b) eta 34.6 artikulua.

4. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak eta establezimendu finko baten bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergapekoak, inbertsio kolektiboko erakunde bateko akzioak edo partaidetzak eskuratzen dituen erren-

ta egozpeneko araubideko entitate bateko kideak badira, zerga oinarrian sartuko dute akzio edo partaidetza horietatik sortutako errenta kontabilizatuaren zenbatekoa. Halaber, zerga oinarri horretan sartuko dute hirugarrenei errenta egozpeneko araubideko entitatearen alde sortutako norberaren kapitalak lagatzeagatik lortutako kapital higigarriaren etekinen zenbatekoa.

50. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Egoitza atzerrian dutenen Errentaren gaineko Zergari eta Zerga Arauei buruzko abenduaren 9ko 41/1998 Legean ezarritakoa deusetan galarazi gabe, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren arauetara jarraikiz, konturako sarrerei eta zerga jasanarazpenei lotuak egonen dira errenta egozpeneko araubideko entitateei pagatzen zaizkien errentak, aintzat hartu gabe haietako kide guztiak edo batzuk zerga honen edo Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak edo Atzerritarren Errentaren gaineko zergapekoak diren ala ez.

2. Kenkariak aplikatzeko, bazkide, oinorde, komunero edo partaideei zerga jasanarazpen edo konturako sarrera horiek esleituko zaizkie errenten proportzio berean. Norberaren ezarpena egitean burutuko dira kenkariak.”

Hogeita hamaika. 52. artikulua.

“52. artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partehartzaileen tributazioa.

1. Inbertsio kolektiboko erakundeak arautzen dituen abenduaren 26ko 46/1984 Legeak eraendutako inbertsio kolektiboko erakundeetako bazkide edo partaide diren subjektu pasiboek, hurrengo errentak egotziko dizkiete zerga-oinarriaren zati orokor edo bereziari, Foru Lege honetako arautan xedatuarekin bat:

a) Akzio edo partaidetzen eskualdatzetik edo partaidetzen errenboltsotik ateratako ondare gehikuntzak eta urripenak. Balore homogeenak direnean, zergadunak eskualdatu edo errenboltsatuzat joko dira lehenago erosi zituenak.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetza edo akzioen errenboltsotik edo eskualdatzetik ateratako zenbatekoa erabiltzen bada inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetza gehiago erosteko, erregelamenduaren arabera ezarritako prozedurari jarraikiz, ez da bidezkoa izan ondare gehikuntza edo urripena zenbatzea. Era berean, izenpetutako edo erositako akzio edo partaidetza berriek mantentzen ahalko dute errenboltsatu edo eskualdatutako akzio edo partaidetzen balorea eta eskuratze-data honako kasuetan:

a) Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen esku aldatze edo ordainketetan, inbertsio fondotzat jotzen badira.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eskuz aldatzean, baldin eta erakundea sozietate gisa eraturik badago, eta eskuz aldatzen diren akzioetako Inbertsio kolektiboko erakundeetako akziodunak 5.000 baino gehiago badira.

b) Inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako emaitzak. Horiek inoiz ez dute eskubiderik emanen Foru Lege honen 62. artikulua aipatzen duen ezarpen bikoitzagatik kenkaria izateko.

Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50. artikulua erabaki duen karga-tasa orokorra ezar dakiekeen ondasun higigarrietako eta higiezinetakoko inbertsioko sozietateetarako heldu diren dibidenduei ere aplikatzen ahal zaie aipatu kenkaria.

2. Artikulu honetako aurreko atalean aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an emandako 85/611/CEE Zuzentarauak arautzen dituen Inbertsio kolektiboko erakundeetako kide edo parte hartzaileei. Dena den, erakunde horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: artikulu honetako 4. atalean aurreikusitakoak ez beste izatea, Europako Batasuneko kidea den herrialderen batean eratu eta bertan helbidea edukitzea, eta Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren erregistro berezian sartuta egotea, Espainian egoitza duten entitateek merkaturatu ahal izateko.

Merkataritzako entitateek urtero aurkeztu beharko dute informazio aitorten bat. Haren edukia erregelamenduaren arabera zehaztuko da, eta bertan agertuko dira zerga horren subjektu pasiboak diren bazkide edo parte hartzaileen izen-abizenak, eta zergaldiko zerga-oinarriaren zati orokorri edo bereziari dagozkion errentak.

3. Sozietate gisa eraturiko inbertsio kolektiboko erakundeek izan behar dituzten akzionisten gutxieneko kopurua honelaxe xedatuko da:

a) Abenduaren 26ko 46/1984 Legeari loturiko inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, inbertsio kolektiboko erakundeek edo beren sozietate kudeatzaileek Balore Merkatuko Komisio Nazionalari, eskualdatze data baino lehen, igorri behar dioten azken txostenean adierazitakoak.

b) Artikulu honetako aurreko atalean sartutako inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren merkataritzako entitate gisa erregistratutako Ogasun Ministerioari emandako azken informazioaren arabera

zehaztuko da eta erregistratutako partitze bakoitzari buruzkoa izanen da.

4. Erregelamenduz zerga-paradisu gisa sailkatutako herrialde edo lurraldeetan eraturako inbertsio kolektiboko erakundeetan parte hartzen duten subjektu pasiboek, beren partaidetza horrek zergaldiaren amaiera egunean duen balio likidatzailearen eta erosketa balioaren arteko diferentzia positiboa egotziko diote zerga-oinarriaren zati orokorrari, Foru Lege honen 53. artikulua aurreikusitakoaren arabera.

Egotzitako kopurua erosketa balio handiena dela iritziko da.

Inbertsio kolektiboko erakundeak banaturiko etekinak ez dira zerga oinarrian sartuko eta gutxitu eginen dute partaidetzaren erosketa balioa. Etekin horiek ez dute eskubiderik sortuko ezarpen bikoitzagatik kenkarietarako.

Idatz-zati honetako lehen lerroaldean jasotzen den diferentzia, kontrako frogarik ez den bitartean, akzioaren edo partaidetzaren erosketa balioaren 100eko 15 dela iritziko da.”

Hogeita hamabi. 53.a) artikulua.

“a) Etekin eta errenta egozpenak, zergaldi bakoitzean beraien artean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldoa. Etekin eta egozpen horiek ondoko legeetan aipatzen dira: Foru Lege honen 51 eta 52.4 artikulua eta Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko IV. kapitulua.”

Hogeita hamahiru. 55. artikulua.

“55. artikulua. Likidazio oinarri orokorra.

Zerga-oinarri orokorrari hurrengo murrizpenak bakarrik aplikatu ondoren ateratzen den kopurua izanen da likidazio oinarri orokorra:

1. Pentsio planei eta sistema alternatiboei, mutualitatei eta aseguratutako aurreikuspen planei egindako ekarpenengatik:

1. Pentsio planetako partaideek egindako ekarpenak, sustatzaileek plan horietara edo maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikulua dakartzan gizarte-aurreikuspen sistema alternatiboetara egindako ekarpenak barne, laneko etekin kontzeptupean egotzi bazaizkie.

2. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan egiten diren ekarpenak eta kontribuzioak honako baldintza hauek betetzen badituzte:

A) Baldintza subjektiboak:

a) Gizarte Segurantzako araubideren batean integraturik ez dauden profesionalek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratuaren ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko direnean, eta, Foru Lege honen 35. artikuluko 1. arauan jasotzen den eran, enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia zehazteko gastu kenkari gisa erabili ez direnean.

b) Gizarte Segurantzako edozein araubidetan integraturik dauden profesionalek edo enpresario indibidualek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratuaren ordaindutako kopuruak badira, betiere Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan ezarritako gertakizunen ondorioak estaltzeko direnean.

c) Besteren konturako langileek edo bazkide langileek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin egindako aseguru-kontratuaren ordaindutako kopuruak, sustatzaileek haien alde laneko etekin kontzeptupean ordaindu eta egotzitakoak barne, betiere maiatzaren 12ko 3/1988 Foru Legearen 77. artikuluan xedaturikoaren arabera egin badira, aipatu bazkide langileentzako langabezi prestazioa sartuz.

B) Mutualisten eskubide kontsolidatuak, pentsio planei dagozkionean, Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.8 artikuluan ezarritako kasuetan baino ezin izanen dira bihurtu.

Aipatu eskubide kontsolidatuak, bere osotasunean edo hein batean, bestelakoetan erabiliz gero, subjektu pasiboak bere aitorpenean sartu beharko ditu lan-etekin gisa jasotako kopuruak, bai eta zerga zela-eta sartu ez ziren zenbatekoei zegozkien berandutze interesak ere zerga oinarrian murrizpena jaso zuten ekarpenen ondorioz, erregelamenduaren arabera ezarri moduan.

3. Aseguratutako aurreikuspen planetarako ordaindutako primak.

4. Lehenengo idatz-zati honetan aurreikusitako gizarte aurreikuspeneko sistemetan urtean egindako gehieneko ekarpenen multzoak, eta kasu bada, sustatzaileek egotzitakoak barne, hurrengo 5. eta 6. puntuetan ezarritakoaren arabera zerga oinarria murrizteko eskubidea ematen ahal dutenek, ezin izanen dituzte gaintu Pentsio plan eta fondoak arautzeari buruzko ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 5.3 artikuluan aurreikusitako zenbatekoak.

Aurreko lerroaldean ezarritako mugaren gainetik egindako ekarpen edo kontribuzioen soberakinek ez dute eskubiderik emanen zerga oinarria murrizteko, ez eta jasotako prestazioak gutxiagotzeko ere, bere osotasunean tributatu baitute.

5. Aurreko puntuetan jasotzen diren murrizpenen kopuru gehieneko eta muga, ondoren finkatzen diren kopuruetakoa txikiena izanen da:

a) Norberak ekitaldian zehar jasotako laneko etekin garbien, eta enpresa- edo lanbide-jarduere-takoen batuketaren 100eko 25a.

Hala ere, berrogeita hamabi urtetik goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko portzenta-jea 100eko 40 izanen da.

b) 7.212,15 euro urtean.

Dena den, berrogeita hamabi urtetik goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko muga hori 601,01 euro gehiago handituko da partaide edo mutualistek berrogeita hamabi urtetik goiti duten urte bakoitzeko. Hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten partaide edo mutualistendako 15.025,30 euroko kopurua finkatu da.

Enpresarioak berak gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan edo enplegu-pentsio planetan egiten dituen ekarpenak, baldin eta entitate horien sustatzaile eta partaide edo mutualista ere bada, muga horren beraren barrenean egonen dira.

c) Aurreko a) eta b) letretan ezarritako mugak banan banan aplikatuko zaizkio familia unitateko subjektu pasibo bakoitzari.

6. Zerga oinarria murrizteko eskubidea ematen ahal duten ekarpenak aurreko puntuan ezarritako mugatik goitikoak badira, lehenengo idatz-zati honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetan ekarpenak egin dituzten partaideek, mutualistek edo aseguratuek, hurrengo bost zergaldietan aukera izanen dute soberakin horri dagozkion kopuruak murrizteko.

7. Aurreko muga arabera egindako murrizpenak alde batera utzita, subjektu pasiboek, beren ezkontideak lan etekin garbirik edo enpresa- edo lanbide-jardueren ondoriozko etekinik jasotzen ez badu, eta urtean 8.414,17 euro irabazten baditu, zerga oinarri orokorretik murrizten ahalko dituzte pentsio planetan, gizarte aurreikuspeneko planetan eta aseguraturako aurreikuspen planetan egindako ekarpenak, betiere ezkontidea partaide, mutualista edo titularra izanik eta urteko 1.803,04 euroko gehiengo mugarekin. Oinordekotza eta dohaintzen gaineko zergak ez ditu ekarpen horiek gobernatuko.

2. Pentsio konpentsagarriengatik.

Kontzeptu horrengatik ezkontidearentzat ordaindutako kantitateak eta mantenuko urteko kopuruak, subjektu pasiboaren seme-alaben alde ezarritakoak salbu –bi kantitate horiek epailearen erabakiz ezarri beharko dira–; halaber, bikotekide egonkorarentzat ordaindutako kantitate legez gal-dagarriak.

3. Gutxiengo pertsonalarengatik.

Oro har, gutxiengo pertsonala subjektu pasibo bakoitzeko 3.440 eurokoa izanen da urtean.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 800 euro hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboendako. Zenbatekoa 1.800 eurokoa izanen da hirurogeita hamabost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboen kasuan.

b) 1.960 euro subjektu pasibo ezinduendako, egiaztatzen badute minusbaliotasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65koa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 6.960 eurokoa izanen da subjektu pasiboak egiaztatzen badu minusbaliota-sun maila % 65koa edo handiagoa duela.

4. Gutxiengo familiarrengatik.

1. Gutxiengo familiarra honako hau izanen da:

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errenta, salbuetsiak kenduta, lanbide arteko gutxieneko soldata baino altuagorik jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, honako hauek:

– 800 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) lettran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 1.800 euro, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko horiek famili unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errentak gutxieneko soldata horren halako bi izanen dira gehienez, famili unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ezkongabe bakoitzeko, subjektu pasiboarekin bizi bada eta urteko lanbidearte oinarritzko soldatetik goragoko errentarik, salbuetsiak bazter utzirik, jasotzen ez badu:

– 1.535 euro urtean, lehen eta bigarreneko.

– 2.250 euro urtean hirugarreneko.

– 3.000 euro urtean laugarreneko.

– 3.500 euro urtean bosgarreneko.

– 4.000 euro urtean seigarren eta hurrengoetako.

Zenbateko horiek aplikatuko dira ondorengo ezkongabe bakoitzeko ere, edozein adinetakoa izanik, eskubidea badu c) letran aurreikusitako kenkariak jasotzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo edo haur adoptatu bakoitzeko, 1.200 euro urtean. Adopzio kasuetan murrizpen hori aplikatuko da adopzioaren ebazpen judiziala edo administratiboa ematen den zergaldian eta hurrengo bietan.

c) Aurreko ahaide ezkongabe edo ondorengo bakoitzeko, edozein adinetakoa izanik eta betiere horien urteko errentak, salbuetsiak izan ezik, kasuan kasuko zergaldian, urteko lanbidearteko oinarritzko soldata baino gutxiagokoak badira, eta ezinduak badira (minusbaliotasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa), subjektu pasiboarekin bizi direnean, arestiko letretan xedatutakoari jarraituz bidezko diren kenkariez gain: 1.960 euro urteko. Zenbateko hori 6.960 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko horiek famili unitate baten parte badira, arestiko lerroaldean aurreikusitako errentak gutxieneko soldata horren halako bi izanen dira gehienez, famili unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoa betetzeko, ondorengo sailkapen berean sartuko dira aplikagarri den legedian ezarritako terminoetan egindako tutoretza, adopzio eta harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotutako pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaiderik ez izan arren.

d) Subjektu pasiboak 1.960 euro murrizten ahaliko ditu pertsona lagundutzat jota dagoen senide bakoitzeko, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Lagundutako pertsonaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak eginen du kenketa eta, halakorik egon ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak.

Murrizpena ezin izanen da egin lagundutako pertsonaren senideren batek jasotzen badu idatz-zati honetako c) letrako kenkaria gutxiengo familiarrarengatik.

Pertsona lagundutzat jotzea egiaztatu egin beharko da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri

Departamentuak zergaldi bakoitzerako emandako ziurtagiriarekin.

2. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxiengo familiarrak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean hainbanatuko da.

Dena den, subjektu pasiboek ahaidetasun maila desberdina badute aurreko edo ondorengo ahaidearekin edo lagundutako pertsonarekin, gertueneko mailako ahaideak soilik izanen du kenkari familiarra izateko eskubidea. Hurbileneko ahaideen artean inork ez badu urteko lanbidearteko oinarritzko soldatetik gorako errentarik, salbuetsiak bazter utzita, kenkaria hurrengo mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxiengo pertsonal eta familiarra izanen da idatz-zati honen eta aurrekoaren arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batuketa.

5. Ondorengoak, aurrekoak eta pertsona ezgaituak zaintzeagatik.

Subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako zenbatekoak Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioengatik familiaren etxean aritzen diren pertsonekin sinaturiko kontratuen ondorioz. Langile horiek hamasei urte baino gutxiagoko ondorengoak zainduko dituzte, bai eta subjektu pasiboari artikuluko 4. idatz-zatiaren a), c) eta d) letretako gutxiengo familiarren aplikaziorako eskubidea ematen dioten pertsonak ere.

Kenkari hori aplikatzen ahaliko da, orobat, subjektu pasiboa bera zaintzeko sinatutako kontratuen kasuan, baldin eta hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo egiaztatzen badu bere minusbaliotasun maila % 65ekoa edo gehiagokoa dela.

6. Artikulu honetan aipatzen diren murrizpenak hurrengo erregelen arabera eginen dira:

1. Lehen eta bigarren idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko dira lehenbizi.

2. Eraitza positiboa bada, 3., 4. eta 5. idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Eraitza negatiboa izanez gero, 3., 4. eta 5. idatz-zatietan ezarritako murrizpena aplikatu litzaioke zerga-oinarriaren zati bereziari, negatibo bihurtu gabe ere.”

Hogeita hamalau. 59.1. artikulua.

“1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria.

Muga	Tasa efektiboa	Kuota osoa	Oinarriaren soberakina	Tasa
-		-	3.400,00	14,0
3.400,00	14,00	476	4.000,00	22,5
7.400,00	18,59	1.376	8.000,00	25,5
15.400,00	22,18	3.416	12.500,00	28,0
27.900,00	24,73	6.776	13.000,00	36,5
40.900,00	28,42	11.339	13.000,00	42,0
53.900,00	30,92	15.119	gainerakoa	44,0"

Hogeita hamabost. 60. artikulua.

"60. artikulua. Likidazio oinarri bereziaren karga-tasa.

Likidazio oinarri bereziak 100eko 15eko karga-tasa izanen du."

Hogeita hamasei. 62.1.g) artikulua.

"g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, a) letrako portzentajea 100eko 18 izanen da. Abenduaren 31n familia ugaria izateko baldintzak betetzen dituzten familia unitateen kasuan, aldiz, portzentaje hori 100eko 30 izanen da."

Hogeita hamazazpi. 62.2. artikulua.

"2. Ohiko etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria.

100eko 15a eta gehienez ere 601,01 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, beti ere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

Subjektu pasiboak ez izatea zergaldian 24.040 euro baino gehiagoko errentarik, salbuetsiak bazter utziz.

Alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboaren zergaldiko errentaren 100eko 10a baino gehiagokoak izatea, salbuetsiak barne."

Hogeita hemezortzi. 62.5. artikulua.

"5. Kenkaria lanagatik.

Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasibok 685 euro kentzen ahalko dituzte.

Langile aktibo gisa lan etekinak eskuratzen dituzten subjektu pasiboendako, % 33ko edo handiago eta % 65eko baino txikiagoko minusbaliotasuna badute, aurreko lerroaldean aipatutako kenkaria 1.085 eurokoa izanen da; eta minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa badute, berriz, 3.000 eurokoa.

Zenbaki honetan aurreikusitako kenkariaren zenbatekoak ezin izanen du gaudituz 59. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen duen batez besteko karga-tasa zergapeturiko lanaren etekin garbiei aplikatzearen emaitza."

Hogeita hemeretzi. 66. artikulua.

"66. artikulua. Kuota diferentziala.

Kuota diferentziala honako kopuru hauetan zergaren kuota likidoa gutxitzearen emaitza izanen da:

a) Hurrengo artikuluan aurreikusten den nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria.

b) Foru Lege honetan eta erregelamenduzko garapen arauetan ezarritako atxikpenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak.

c) Foru Lege honen 51. artikulua 8. idatz-zatiak aipatzen dituen kenkariak.

d) Subjektu pasiboak izaera berria hartzen duenean egoitzaz aldatzeagatik, Foru Lege honen 81. artikuluko 8. idatz-zatian aipatutako atxikpenak eta konturako sarrerak, bai eta Egoitza atzerrian dutenen errentaren gaineko zerga dela-eta egoitzaz aldatu diren zergaldian ordaindutako kuotak."

Berrogei. 67. artikulua.

"67. artikulua. Kenkaria, nazioarteko ezarpen bikoitzarengatik.

1. Subjektu pasiboaren errenten artean atzerrian erdietsi eta kargatutako etekinak, errenta egozpenak edo ondare gehikuntzak daudenean, kuota likidoari ondoko zenbatekoetako txikiena kenduko zaio:

a) Zerga honen edo Egoitza atzerrian dutenen errentaren gaineko zergaren izaera bera edo antzekoa duen beste zerga bat kitatzeko atzerrian pagatutako zenbateko efektiboa etekin edo ondare gehikuntza horien gainean.

b) Likidazio oinarriaren zati bati batez besteko karga-tasa efektiboa aplikatzearen emaitza. Aipatu zati hori atzerrian kargatutako tasei dagokie eta bidezkoa zen barne araudia aplikatu zaio.

2. Ondorio horietarako, batez besteko karga-tasa efektiboa kalkulatzeko honako eragiketa hau egin beharko da: "kuota likidoa : likidazio oinarria x 100". Helburu hori dela-eta, zergaldiko likidazio oinarriaren zati orokorrean edo berezian sartzeko errentei dagokien kasuan kasuko karga-tasa bereizi beharko da. Karga-tasa bi hamarrenekin emanen da.

3. Atzerrian establezimendu finko baten bidez errentak eskuratzen diren kasuetan, artikulua honek aurreikusitako nazioarteko ezarpen bikoitzarengatikoa kenkaria aplikatuko da, eta ez da inola ere aplikatuko ezarpen bikoitza baztertzeko prozedura, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 60.bis artikuluan aurreikusitakoa, alegia.”

Berrogeita bat. Artikulu bat gehitu da: 67 bis.

“67 bis artikulua. Alarguntasun pentsioengatikoa kenkaria.

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alarguntasun pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, urtean 2.700 euro baino gutxiago kobratzen badituzte, eta Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, kenkari osagarria egiten ahalko dute, gehienez ere 720 eurokoa urtean.

Alarguntasun pentsioaren zenbatekoa, urtean, aurreko urteari dagokiona izanen da, aipatu osagarriak kenduta, salbu eta jasotzen hasten den urtean, kasu horretan zenbatekoa aldi horretakoa izanen baita.

Alarguntasun pentsioa zergaldi osoan jasotzen ez bada, pentsioaren zenbatekoa urtebetekoa izanen da.

Kenkaria kalkulatu da zergaldian zehar alarguntasun pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egun kopuruaren arabera.

Gizarte Ongizate, Kirol Eta Gazteri Departamentuari eskatzen ahalko zaio kenkari hori denbora baino lehen pagatzeko. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta behar baino lehenago jasotzeko eskaera egin eta eskuratzekoa ere.”

Berrogeita bi. 75.3 artikulua.

“3. 62. artikulua 2. idatz-zatian aipatzen den errenten gehieneko zenbatekoa, 51.086 eurokoa izanen da familia unitate osoarentzat.”

Berrogeita hiru. 75.7 artikulua.

“7. 71. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letrako familia unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxiengo pertsonala (55. artikuluko 3. idatz-zatia) 2.150 eurotan hadituko da. Igoera hori ez da gertatuko aita-amak elkarrekin bizi badira.

Berrogeita lau. 81.8. artikulua lerroalde berri bat gehitzea.

“Zerga honen subjektu pasiboak ez diren besteen konturako langileek, Espainiara iritsi eta izaera hori eskuratu behar badute eta, beraz, Foru Komunitatean tributatu behar badute Foru Lege honen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari ematen ahalko diote lekualdatze horren berri eta herrialde honetan sartu ziren eguna jakinarazi, lansaria ordaintzen duenak zerga honen subjektu pasibotzat har ditzan. Erregelamenduaren arabera ezartzen den prozedurari jarraikiz, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hori dena egiaztatze agiri bat luzatuko die besteen kontura ari diren langilei, hala eskatzen badute, non agertuko baita noiztik egin behar diren atxikipenak eta konturako sarre-ak zerga honen gainean. Hori guztia Espainian egoitza edo establezimendu finkoa izan eta lansaria ordaintzen dienari jakinaraziko diote.”

Berrogeita bost. Orain arte 84 eta 85. artikulua zirenak 83 eta 84. izanen dira hurrenez hurren, eta 85. artikulua beste modu batera erredaktatuko da.

“85. artikulua. Autolikidaziorako proposamena.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak likidaziorako proposamen bat igortzen ahalko die subjektu pasiboek, Departamentu horretako kontseilariak ezartzen dituen baldintzekin.

Aipatu proposamenaren ondorioz gerta daiteke dirusarrerak itzuli beharra. Hori baliokidetu edo arautuko da artikulua honen hurrengo idatz-zatien xedatutakoaren arabera.

2. Subjektu pasiboaren ustez autolikidaziorako proposamenak ongi islatzen badu bere egoera zerga arloan, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen dituen baldintzei jarraikiz berresten ahalko du. Hala bada, proposamenak zerga honen gaineko aitorten eta likidazio izaera hartuko du, Foru Lege honen 83 eta 84. artikuluekin bat.

3. Likidaziorako proposamenak diru kopuru bat itzuli beharra xedatzen badu, artikulua honen 1. idatz-zatian aurreikusitako itzulpena jaso ondoren, zergaren aitortzea aurkezteko epe arruntean subjektu pasiboak halakorik egiten ez badu, automatikoki berretsiko da.

4. Likidaziorako proposamenak diru kopuru bat sartu beharra xedatzen badu, zerga osorik edo haren zatiketaren lehen parte, erregelamenduen arabera horretarako ezarritako epean ordaindutakoan, automatikoki berretsiko da. Autolikidaziorako proposamenak agintzen duen diru

kopurua Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezarzen duen tokian, moduan eta epean sartuko da.

Zorrari dagokion kopurua, osorik edo haren zatiketaren lehen parte, erregelamenduaren arabera horretarako ezarritako epean ordaintzen ez bada, artikuluko honen 7. idatz-zatian aurreikusitako ondorioak beteko dira.

5. Subjektu pasiboak autolikidaziorako proposamena berresteak ez du galaraziko, kasua bada eta araudi orokorrari jarraikiz, autolikidazioaren zuzenketak egiteko edo zuzenak ez ziren dirusarrerak itzultzeko eskaera.

Tributu administrazioak ez ditu autolikidazioak parekatu beharko autolikidaziorako proposamenerako datuekin, subjektu pasiboek proposamena berretsi badute ere.

6. Autolikidaziorako proposamena baietsizat jotzeko unea edozein dela, eta haren gaineko kasu guztietan, zerga zorra zehazteko ahalmena iraungitzeko epea aitorpena aurkezteko erregelamenduzko epea bukatzen denetik aurrera hasiko da.

7. Subjektu pasiboak autolikidaziorako proposamena berresten ez badu, ondorioz gabe geldituko da, baina horrek ez du galaraziko inola ere aitorpena aurkeztearen ezinbestekotasuna, Foru Lege honen 83. eta 84. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Erregelamenduaren arabera autolikidazioak aurkezteko epean bat aurkezten bada, ulertuko da autolikidaziorako proposamena berretsi ez dela.

Berretsi gabeko autolikidaziorako proposamenari dagokion dirua itzuli edo sartu egiten bada, subjektu pasiboak bidezkoa den erregularizazioa egin beharko du, erregelamenduak aitorpena aurkezteko ezarritako epean. Erregularizazio horrek ez du sortuko ez berandutze interesik ez zehapen ezarpenik."

Berrogeita sei. 91.1 eta 2 artikulua.

"1. Foru Lege honen 66. artikuluko e) letran aipatutako Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenak, konturako sarrerak, zatikatutako ordainketak eta kuota batuta, eta kasua bada, Foru Lege honen 67.bis artikuluan aurreikusitako kenkaria ere gehituta, ateratzen den kopurua ezarritako epean aurkeztutako autolikidazioaren kuota baino handiagoa izanez gero, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, beharrezkoa bada, behin-behineko likidazioa egiten du aitorpena aurkezteko epea bukatu eta ondoko sei hilabeteetan.

Likidazio hori ez da beharrezkoa izanen itzultitako zenbatekoa bat datorrenean subjektu pasiboak aitorpen-likidazioan edo autolikidazioan eskatutakoarekin.

Aitorpena epez kanpo aurkeztu baldin bada, aurreko lerroaldeak aipaturiko sei hilabeteak aurkezpen-egunetik aurrera zenbatuko dira.

2. Baldin eta batzen badira zerga honen kontura eginiko ordainketak, egiazki atxikitako kopuruak, Foru Lege honen 66. artikuluko e) letrak aipaturiko Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako kuota, eta autolikidazioaren edo –hala balitz– behin-behineko likidazioaren ondoriozko kuota txikiagoa bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arioz itzulitako aipatutako kuotaren gaineko soberakina, deusetan galarazi gabe egoki diren ondorengo behin-behineko nahiz behin betiko likidazioak."

Berrogeita zazpi. 91. artikuluko 5. idatz-zatia kendu da. Beraz, orain arte 6. idatz-zatia zena 5.a izanen da hemendik aitzina.

Berrogeita zortzi. 95. artikulua.

"95. artikulua. Errenta egozpeneko araubideko entitateen beharra informazioa emateko.

1. Errenta egozpenaren araubideko entitateek informazio txosten bat aurkeztu beharko dute, Espainian egoitza izan ala ez bazkide, oinorde, komunero edo partaideei egotzi beharreko errentei buruzkoa. Edukia erregelamendu bidez zehaztuko da.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako informazio txostena honakook eman beharko dute: errenta egozpeneko araubideko entitatearen ordezkaria, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen 36.4 artikuluan agindutakoaren arabera, edo, atzerrian eraturako entitateen kasuan, berriz, Sozietateen gaineko zergaren edo zerga honen subjektu pasiboak diren kideak.

3. Errenta egozpeneko araubideko entitateek beren bazkide, oinorde, komunero edo partaideei jakinarazi beharko diete entitatearen errenta guztia eta haietako bakoitzari egozten ahal zaiona, erregelamenduaren arabera ezarri bezala.

Horretarako, zergaren aitorpena egiteko epea hasi baino lehenago, bazkide, oinorde, komunero edo partaide bakoitzari erregelamenduak zehaztutako datuen egiaztagiriak emanen zaizkio. Subjektu pasiboek egiaztagiri horiek aurkeztu beharko dituzte zergaren aitorpen-likidazioarekin batera.

4. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak finkatuko ditu artikuluko honetan aipatutako informazio

txostena aurkezteko ereduia zein epea, tokia eta modua.”

Berrogeita bederatzia. Bosgarren xedapen gehigarrian 3. eta 4. idatz-zatiak eranstea.

“3. Horretaz gain, erregelamenduaren bidez ezartzen ahalko da informazioa emateko beharra ondokoan kargura:

a) Aseguru-etxeek aurkeztu beharko dute saltzen dituzten aseguratutako aurreikuspen planen buruzkoa, Foru Lege honen 55.1.3. artikuluan aipatzen direnei buruzkoa hain zuzen ere.

b) Gizarte Segurantzako erakundeek eta mutualitateek beren kide eta mutualistek sortutako kotizazio eta kuotei buruzkoa.

4. Bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek eta banku edo kredituen trafikoan aritzen diren pertsona fisiko edo juridikoek, erregelamenduak ezarritako baldintzei jarraikiz, zerga administrazioari eman beharko diote entitate horietan irekitako kontu guztien identifikazioa, edo entitateek hirugarrenen esku jarritakoena, betetzen duten modalitatea edo hartzen duten izena edozein dela ere, atxikipean edo konturako sarrerak egin ez badira ez ezik. Informazio horretan sartuko da kontuen titularren zein baimendutako pertsonen edo onuradunen identifikazioa.”

Berrogeita hamar. Seigarren xedapen gehigarria.

“Seigarrena. Besteren konturako langileen mutualitateak.

Besteren konturako langileendako pentsio-sistema osagarri gisa Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateek adosturiko aseguru-kontratuen ondorioz ordainduriko kopuruek zerga-oinarriaren zati orokorra murrizten ahalko dute, Foru Lege honen 55. artikulua ezarritako moduan, baldin eta alde aurretik, gutxienez ere urtebetez, erregelamenduz finkatuko den moduan, mutualista horiek beraiek ekarpenak egin badituzte mutualitate horietarako, Aseguru Pribatuak Antolatuta eta Ikuskatzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen bosgarren xedapen iragankorrean eta hamabosgarren xedapen gehigarrian aurreikusita-koari jarraituz, eta, betiere, prestazioak Pentsio Plan eta Fondoak arautzeko ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan aurreikusitako kontingentzia berberak gertatzen direnean soilik kobratzen uzteko erabakia hartu baldin badute Mutualitateko kasuan kasuko organoek.”

Berrogeita hamaika. Hamabosgarren xedapen gehigarria.

“Hamabosgarrena. Minusbaliatuen alde egindako pentsio planen, gizarte aurreikuspeneko mutualitateen eta aseguratutako aurreikuspen planen ekarpen eta prestazioen zerga araubidea.

1. Honako zerga araubide hau aplikatuko zaie pentsio planen eta haizetatik heldu diren prestazioei, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 40/1998 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriak eta Zergei buruzko bestelako arauak agintzen dituzten betekizunak, ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte:

a) Zilegi izango da pentsio plan horietara sartzen diren dirutzei murrizketa egitea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren parte orokorrean, gehieneko muga hauek kontuan hartuta:

a') Partaide bakoitzak bere ahaide minusbaliatuta baten alde urtean egindako ekarpenen kasuan: 7.212,15 euro urtean. Horrek ez du galarazten beren pentsio planetan ere dirua sartzea, Foru Lege honen 55. artikulua ezartzen dituen mugen barrenean.

b') Partaide munusbaliatuek berek urtean sartzen duten dirurako: 15.025,30 euro urtean.

Minusbaliatu baten alde egindako ekarpenak, minusbaliatuak berak egindakoak barne, gehienez ere 15.025,30 eurokoak izanen dira urtean. Hartarako, minusbaliatu baten alde aportazio bat baino gehiago egiten badira, aurrena minusbaliatuak berak egindako aportazioei egin beharko zaie murrizketa, eta, kopurua 15.025,30 eurora iristen ez bada, orduan beste norbaitek haren alde egindako aportazioei, beste norbait horren zerga oinarrietan, proportzionalki, eta edozein kasutan ere minusbaliatu bakar baten alde aportazioak egin dituzten pertsona guztien murrizketak ez dira inoiz izanen 15.025,30 euro baino gehiago.

b) Minusbaliatuek errenta gisa jasotako prestazioetatik heldu diren lan-irabaziek, xedapen honek aipatzen dituen aportazioei dagozkienak, murrizketa izanen dute zerga honetan, lanbidearteko soldata gutxienekoa halako biraino.

Minusbaliotasuna duten pertsonen kapital gisa jasotako prestazioak direnean, xedapen honek aipatzen dituen aportazioei dagozkienak, Foru Lege honen 17.2.b) artikuluan aurreikusitako murrizketa 100eko 50 izanen da, betiere lehenbiziko aportaziotik bi urte baino gehiago iragan direnean.

2. Xedapen honetan erregulatutako araubidea honako kasutan ere aplikatuko da: minusbaliatuta

tuen alde gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan egindako aportazioak eta haien prestazioak, aurreko ataleko baldintzak betetzen badituzte; aseguratutako aurreikuspen planetarako ordaindutako primak; eta Foru Lege honen 55. artikuluan eta aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten prestazioak. Kasu horretan, pentsio planetarako ekarpenek, gizarte aurreikuspeneko mutualitateek eta aseguratutako aurreikuspen planek multzo bakarra osatuko dute atal horretan ezarritako mugei dagokienez.

3. Minusbaliotasuna duten pertsonen alde egindako pentsio planetarako aportazio, gizarte aurreikuspeneko mutualitate eta aseguratutako aurreikuspen planen kasuan, ez ditu Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergak gobernatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 9ko 40/1998 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian eta Zergei buruzko gainerako Arauetan aipatutako pertsonen eginak baldin badira.”

Berrogeita hamabi. Hamaseigarren xedapen gehigarriaren b) eta d) letrak.

“b) 40/1998 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 4. idatz-zatian aipatuak ez bezalako kasuetan kontsolidatutako eskubideak erabiltzen baldin badira, subjektu pasiboak zerga oinarrian zilegi izan gabe egindako murrizketak birjarri beharko ditu; gainera, aitorten-likidazio osagarriak eginen dira, berandutza korrituak barne. Bestalde, kontsolidatutako eskubideen aurretiazko erabilpenagatik jasotako zenbatekoek lanaren etekin gisara tributatu dute.”

“d) Aurreko letretan aurreikusitako araubide berezia alde batera utzita, kirolari profesionalak eta goi mailakoek zilegi izanen dute kirolari profesionalentzako gizarte aurreikuspeneko mutualitateari ekarpenak egitea, kirolari profesional gisa lan-bizitza bukatu badute ere, edo goi mailako kirolariaren izaera galdua izan arren.

Ekarpen horientatik murrizketa egiten ahalko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren zati orokorrean, ekainaren 8ko 8/1987 Legearen 8.6 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak estaltzeko erabiltzen den zatian, betiere Foru Lege horren 55.1.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Aportazio horien murrizketaren gehieneko muga, osotara, gizarte aurreikuspeneko mutualitatearako eta pentsio planetarako Foru Lege horren 55.1.5 artikuluan ezarritakoa izanen da.”

Berrogeita hamahiru. Bigarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatia.

“1. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru kontratuetatik eratorritako prestazioak direla-eta egindako ekarpenak edo haietako batzuk, Foru Lege hau indarrean jarri baino lehenagokoak badira, eta murriztu badute dagozkien zergaldietako zerga oinarria, zergaren zerga oinarrian sartu beharko dira lanaren etekin kontzeptupean.”

Berrogeita hamalau. Hirugarren xedapen iragankorra

“Hirugarrena. Kapital murrizpenaren ostean negoziatziora onartu ez diren balore eta partaidetzak eskualdatzea.

1. Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetakoren batean negoziatziora onartu ez diren balore eta partaidetzak eskualdatu baino lehen, subjektu pasiboaren balore edo partaidetza guztiei era berean eragiten ez dien balio nominalaren murrizketaren bitartez kapital murrizketa egiten bada, III. tituluko II. kapituluko 4. atalean ezarritako erregelak aplikatuko dira, ondoko berezitasunak kontuan izanik:

a) Eskualdatze baloretzat joko da Foru Lege honen 39. artikuluko 4. idatz-zatiaren a) letran ezarritakoa aplikatuz heldu den balio nominalaren arabera legokiokeena.

b) Subjektu pasiboak ez baditu bere balore eta partaidetza guztiak eskualdatu, efektiboki eskualdatu dituen balore edo partaidetzen balio nominalari dagokion eskualdatze-balioaren eta aurreko letran aipatzen den eskualdatze-balioaren arteko diferentzia positiboa gainontzeko balore edo partaidetza homogeneoen erosketa-balioetik murriztuko da, harik eta ezabatu arte. Eragiketa horretatik atera daitekeen soberakinari ondare-gehikuntzari dagokion zerga ezarriko zaio.

2. Aurreko idatz-zatian ezarri diren arauak, ondare sozietateen kapitaleko balore edo partaidetzen eskualdatze kasuan aplikatuko dira.”

Berrogeita hamabost. Zazpigarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatiko b) letra.

“b) Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetakoren batean negoziatziorako onarturiko akzioei dagokienez, ondasun higigarri eta higiezinen inbertsiorako sozietateen sozietate-kapitala ordezkatzeko akzioak izan ezik, ondare-gehikuntza 100eko 25eko kopuruan murriztuko da iraupen-urte bakoi-

tzeko, bigarren iraupen-urtetik aurrera kontatzen hasiz.”

2. artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen artikulua hauen edukia honela erredaktatuko da:

Bat. 13. artikulua.

“13. artikulua. Hirugarrenei egindako kapital propioen lagapena erakusten duten baloreak, bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatuak.

Hirugarrenei egindako kapital propioen lagapena erakusten duten baloreak, Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatuak, urte bakoitzeko laugarren hiruhileko batez besteko negoziazio-balorearen arabera zenbatuko dira, haiek sortutako etekinen izendapena, ordezkariak edo izaera edozein dela ere.”

Bi. 15. artikulua.

“15. artikulua. Entitate orotako fondo berekien partaidetzaren balore adierazleak, bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatutakoak direnean.

1. Edozein entitate juridikotako kapital sozial edo fondo berekietako akzio eta partaidetzak, Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatzen direnean, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoaren batez besteko negoziazio-balioaz konputatuko dira, inbertsio kolektiboko erakundeei dagozkienak izan ezik.

2. Oraindik kotizazio ofizialerako onartu ez diren akzio berrien harpidetzari dagokionez, Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 10eko 93/22/CEE Zuzentarauan definitutako bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan kotizatzen diren entitate juridikoek jaulki eta balore horien balioetat hartuko da harpidetza aldiaren titulua zaharrek azken negoziazioan zutena.

3. Oraindik ordaindu gabeko kapitala zabaltzen denean, akzioak baloratzerakoan aurreko arauak jarraituko zaie, osotara ordaindurik bailiren. Ordaindu gabeko zatia subjektu pasiboaren zortzat hartuko da.”

Hiru. 33.1. artikulua.

“1. Hurrengo ondasun eta eskubideen dagokiei zati proportzionala kenduko zaio Zergaren kuotari:

a) Subjektu pasiboaren ondasun eta eskubideak eta senar-emazteenak direnak, enpresa-jarduera betetzeko beharrezkoak izanez gero, beti ere jarduera hori subjektu pasiboak berak azturaz eta zuzenean burutzen badu eta aipatu jarduera burutzen duenaren errenta-iturri nagusia bada.

Errenta-iturri nagusia kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko zenbaki honetako b) letrak aipatzen dituen entitateetan burutzen diren zuzendaritza-eginkizunen ordainketak, ezta aipatu entitateetan partehartzetik heldutako beste edozein ordainketa ere.

b) Entitateetako partehartzeak, merkatu antolatuetan kotizatuta edo kotizatu gabe, hurrengo baldintzak betetzen direnean:

Lehenengoa. Entitateak enpresa-jardueraren bat benetan burutzea eta ez dezala izan jarduera nagusizat ondare higigagarri edo higiezin baten kudeaketa. Entitateak ondare higigagarri edo higiezina kudeatzen ez duela ulertuko da, eta ondorioz, enpresa-jarduera egiten duela, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 95. artikulua aplikatuz, aipatu entitateak baldintzarik betetzen ez duenean ondare sozietatetzat jotzeko.

Bigarrena. Entitateak sozietate-forma duenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 95. artikulua ezarritako kasurik ez gertatzea.

Hirugarrena. Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza gutxienez 100eko 15a izatea banako gisa zenbatuta, edo 100eko 20a ezkontidearekin batera.

Laugarrena. Subjektu pasiboak entitatean zuzendaritza eginkizuna izatea egiazki, eta horretatik jasotzen duen ordainsaria etekin enpresarial, profesional eta lan pertsonaleko guztien 100eko 50a baino gehiago izatea.

Entitateko partaidetza ezkontidearekin batera izaten denean, zuzendaritza eginkizunak eta hortik sortzen diren ordainsariak horietako batek behintzat izan beharko ditu, nahiz eta biek izanen duten kenkarirako eskubidea.

Kenkariak partaidetzen balioa baino ez du hartuko -balio hori Foru Lege honen 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauarekin bat finkatuko da-, enpresa-jarduera burutzeko behar diren aktiboen, ken jarduera horretatik heldu diren zorren kopurua, eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian.”

3. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2003ko urtarrilaren 1etik aurreragoko zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek honela geldituko dira:

Bat. 7. artikulua.

“7. artikulua. Zergagaia.

1. Zergagaia subjektu pasiboak errenta lortzea izanen da, horren iturri edo jatorria edozein dela.

2. Aurreko zenbakian sartutako kasu gisa hartuko dira:

a) 10. artikulua aipatzen duen errenten egozpena.

b) Likidazio oinarrien, edo etekin edo galeren egozpena Espainia eta Europako interes ekonomikoko enpresa multzoen eta aldi baterako enpresa-elkarteen araubidepeko entitateen subjektu pasiboari. Araubide hori Foru Lege honen X. tituluko IV. kapituluaren erregulatuta dago.

c) Espainian egoitzarik ez duten entitateek nazioarteko zerga gardentasuneko araubidean lortutako errenta positiboak zerga-oinarriaren barruan sartzeko inguruabar eragileak betetzea. Aipatu araubidea Foru Lege honen X. Tituluko III. Kapituluaren arautua dago.”

Bi. 10.1. artikulua.

“1. Sozietate zibilei dagozkien errentak, nortasun juridikoa izan ala ez, bai eta jaraunspen banatugabeei, ondasunen komunitateei eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatutako gainerako entitateei dagozkienak ere, eta jasan dituzten atxikipenak eta konturako sarrerak ondokoei egotziko zaizkie hurrenez hurren: bazkide, oinorde, komunero edo partaideei, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 11. artikuluan eta III. tituluko II. kapituluaren 5.1 idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz.”

Hiru. 6. zenbakia gehitzea 17. artikuluari.

“6. 36. artikuluan xedatutakoa ez zaie aplikatuko artikulua honetan aurreikusitako araubidepeko ondare elementuen eskualdatzea dela-eta zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoei, ondasunaren kostua berreskuratzeko erabili diren eta zerga kontuetan kengarriak diren zenbatekoei, alegia.”

Lau. 26. artikuluko 6. zenbakia kendu da, beraz, egun 7 eta 8. zenbakiak zirenak, 6 eta 7. izanen dira hurrenez hurren.

Bost. 30. artikulua.

“30. artikulua. Administrazioari proposatzea lotutako eragiketak baloratzea.

Subjektu pasiboek Zerga Administrazioaren pean pertsona edo entitate lotuen artean egiten diren eragiketen balorazioarako proposamena jarri ahal izanen dute, eragiketok egin aurretik. Proposamen hori merkatuko balio normalean oinarrituko da.

Proposamenean aurreko artikuluan aipatzen diren gastuak ere azal daitezke.

Behar bezala jakinarazitako balorazio proposamenaren onesprenak ukituko ditu proposamen horren ondoren egin eta onesprenaren araberrakak diren eragiketak. Dena den, onesprenaren ondorioek gehinez ere hiru zergalditan izanen dute indarra.

Proposamena onetsi den inguruabar ekonomikoen aldakuntza adierazkorra izatekotan, berori ere inguruabar ekonomiko berriei egokitzeko aldatzen ahalko da.

Lotutako entitate edo pertsonen arteko eragiketen balorazio proposamenetarako ebazpen prozedura erregelamenduaren arabera ezarriko da. Proposamenak ebazteko epea sei hilabetekoa izanen da. Denbora horretan interesatuak ebazpenik jasotzen ez badu, ulertzen ahalko du bere proposamena ez dela aintzat hartu.”

Sei. 36.1. artikuluko laugarren lerroaldea.

“Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko berrinbertsioa egiten bada lotutako entitate edo pertsona bati erosten zaizkion ondareko elementuetan. Halaber, ondareko elementuen eskualdatketan lortutako errentaren zati bat –etorkizunean erosi edo erabiliz gero gastu kengarriak sortzen dituen hain zuzen ere– zerga oinarrian sartzeko ez bada, ez da gastu horien gaineko kenkaririk aplikatu ahal izanen, gastu horiek sortzen diren ekitaldia zein ere den. Hala ere, subjektu pasiboak gastu horiei dagokien kenkaria aukeratzeko ahalko du. Horrek ekarriko du salbuespena galtzea, zeinak etorkizunean eskuratu edo erabiltzen direnei dagokien lehen gastu kengarriaren ondoriozko sortzapena gertatu den zergaldiko aitortzearen arautuko baita. Erregulatze hori artikulua honen 6. zenbakian ezarritakoaren arabera egingen da, salbuespenak bazter utzita.”

Zazpi. 50.1.b) b') artikuluko bigarren lerroaldea.

“Ez dira inolaz ere enpresa txikitat joko Espainia eta Europako interes ekonomikoko enpresa multzoen eta aldi baterako enpresa-elkarteen edo

ondare sozietateen araubide berezipeko entitateak.”

Zortzi. 62.3.a) artikulua.

“a) Atzerriko errentak, Espainia eta Europako interes ekonomikoko enpresa multzoek eta aldi baterako enpresa-elkarteek eskuratuak.”

Bederatzi. 71.3. artikulua.

“3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako kenkariak 6.000 eta 2.705 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, urtean kontratatzen diren langile minusbaliatu bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulatuta, eta aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.”

Hamar. 74. artikulua.

“74. artikulua. Kenkaria, atxikipenei, konturako sarrerei eta zatikako ordainketei.

Hobarien eta kenkarien zenbatekoan kuota osoa gutxiagotzetik ateratzen den kuotari honakoak kendu ahal izanen zaizkio:

- a) Benetan egindako konturako atxikipenak.
- b) Konturako sarrerak.
- c) Ordainketa zatikatuak.”

Hamaika. 86.2. artikulua.

“2. Txikiagoa bada autolikidazioaren emaitzako kuota edo, halakorik balitz, behin-behineko likidazioarena, benetan atxikitako kopuru, konturako sarrera eta ordainketa zatikatuak baino, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arioz itzuliko da aipatutako kuotaren gaineko soberakina, deuse-tan galarazi gabe egoki diren ondorengo behin-behineko nahiz behin betiko likidazioak.”

Hamabia. 88.5. artikulua.

“5. Erregelamendu bidez, atxikipenik egin beharrik ez dagoen kasuak ezarriko dira. Partikularki, ez da atxikipenik eginen:

a) 12. artikuluan aipatzen diren entitateek eskuraturiko errentetan.

b) Likidazio oinarriaren egozteja jasan behar dituzten bazkideei dagozkien dibidendu edo mozkinetako partaidetzak, banatu dituen entitatea Foru Lege honen X. tituluko IV. kapituluko araubide berezian zegoeneko zergaldien ondoriozkoak badira. Entitate horiek Espainia eta Europako interes ekonomikoko batasunak eta enpresen aldi baterako elkar-teak izanen dira.

c) Sozietate taldeen araubidean zergak ordain-tzen dituen talde bat osatzen duten sozietateen artean ordainduriko dibidenduak edo mozkinetako eta korrituetako partaidetzak.

d) 59. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren dibidendu edo mozkinetako partaidetzak.

e) Aseguru-hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen bizitza aseguruaren aurreikuspenak inbertituta dauden aktiboaren trukaketa- ren ondorioz lortutako errentak.”

Hamahiru. X. tituluko II. kapitulua.

“II. KAPITULUA

Ondare sozietateen araubidea

95. artikulua. Ondare sozietateak.

1. Ondare sozietateetat hartuko dira ondoko inguruabarrak biltzen dituztenak:

a) Aktiboaren erdia baino gehiago balioez osaturik egotea edo aktiboaren erdia baino gehiago enpresa- edo lanbide-jardueren menpe ez izatea.

Enpresa- edo lanbide-jarduerarik dagoenentz edo ondare elementu bat haren menpe dagoenentz erabakitzeke, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Bai aktiboaren balioa, bai enpresa- edo lanbide-jardueren menpe ez dauden ondare elementuena, kontabilitatearen ondoriozkoa izanen da, baldin eta horrek sozietatearen ondare egoera zintzoki adierazten badu.

Aurreko jardueren menpekoea ez diren balore edo ondare elementuek osatutako aktiboaren parte zehazteko:

a') Honakook ez dira balore gisa kontatuko:

– Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.

– Enpresa- edo lanbide-jarduerak garatzean ezarritako kontratu harremanen ondoriozko kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

– Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

– Gutierrez ere bozkatzeko eskubideen ehuneko 5 ematen dituztenak, partaidetza zuzendu eta kudeatzeko edukitzen badira, horretarako, gauzazko eta giza baliabideen kasuan kasuko antolamendua edukiz gero eta parte harturiko entitatea letra honetan agertu ezik.

b') Ez dira balio gisa kontatuko, ez eta enpresa- edo lanbide-jardueren menpe ez dauden ondare elementu gisa ere, haien erosketa prezioa

entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino txikiagoa bada, baldin eta mozkin horiek enpresa- edo lanbide-jardueren ondoriozkoak badira, muga bai urte berean bai azken hamar urteetan lorturiko mozkin haien zenbatekoa izanzen delarik.

Ondorio horietarako, aurreko lerroaldeko azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak izanzen dira enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako mozkinen parekoak izanzen, baldin eta partaidetzako entitateak lortutako diru-sarreraren 100eko 90, gutxienez, enpresa edo lanbide jardueretatik heldu badira.

b) Kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehiago, zuzunean edo zeharka, hamar bazkide edo gutxiagorena edo famili talde batena izatea. Famili taldea da ezkontidea eta zuzeneko edo zeharkako lerroko, odolezko edo ahaidetasun loturen bidez, laugarren gradura arte, hori barne, baturiko pertsonen osatzen dutena.

Zenbaki honetan aipatutako beharkizunak bete beharko dira gizarte ekitaldiko laurogeita hamar egun baino gehiagotan.

2. Araubide hau ez zaie aplikatuko bazkide guztiak pertsona juridikoak dituzten elkartei, baldin eta ondare sozietaterik osatzen ez badute, edo Zuzenbide Publikoko pertsona juridiko bat kapitalaren ehuneko 50 baino gehiagoko titularra bada.

Sozietatearen kapitaleko partaidetzaren balio adierazgarriak Balio Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean aurreikusiriko bigarren balio-merkatu ofizial batean negoziatzeko onarturik dauden zergaldietan ere ez da aplikatuko.

96. artikulua. Ondare sozietateen tributazioa.

Ondaren sozietateek zerga honengatik tributatu dute ondoko arau berezietan jarraikiz:

a) Zerga oinarria bi zatitan bereiziko da; orokorra eta berezia. Halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legean xedatutakoaren arabera finkatuko da, 52. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) letrako 2. lerroaldea bazter utzita, eta honako hau kon-tuan izanik:

a') Enpresa- edo lanbide-jardueren ondoriozko etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren arubide arruntaren arabera zehaztuko da.

b') Ondare gehikuntzaren zenbatekoa kalkulatzean, ez da aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

b) Zerga oinarria bi zatitan bereiziko da; orokorra eta berezia, zerga oinarriaren zati orokorrari eta zati bereziari dagozkienak hurrenez hurren. Horrek ez du ezertan galaraziko aurreko zergaldietako likidazio oinarri negatiboaren konpentsazioa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 56. artikuluan xedatutakoari jarraikiz egiten dena.

c) Likidazio oinarriaren zati orokorrerako karga tasa % 40koa izanzen da. Likidazio oinarriaren zati bereziarena, berriz, % 15ekoa.

d) Kuota osoa gutxituko da soilik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legean aurreikusitako kenkari hauek aplikatuta:

a') 62. artikuluko 3., 4., eta 7. idatz-zatian bil-dutakoak, 64. artikuluan ezarri moduan.

b') 62. artikuluko 6. idatz-zatian eta 67. artiku-luan ageri direnak.

c') Konturako ordainketak.

97. artikulua. Ondare sozietateen dibidenduen banaketa.

Ondare sozietateek banatzen dituzten etekinek honela tributatu dute:

a) Hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa izanez gero, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 28. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) eta b) letretan aipatutako dibidenduak eta etekinetako partaidetzak ez dira sartuko zerga horren kargatu beharreko errentan, banatzen zituen entitateak ondare sozietateen araubidepekoa zen zergaldietan eskuratutako etekinen ondorioa badira.

b) Hartzailea zerga horren subjektu pasiboa edo Egoitza Espainian izan gabe establezimendu finkoa dutenen Errentaren gaineko zergapekoa bada, eskuratzen dituen etekinek dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emanen dute, Foru Lege honen 59.1 artikuluan agindu bezala.

c) Hartzailea Egoitza Espainian izan ez eta establezimendu finkorik ez dutenen Errentaren gaineko zergapekoa bada, eskuratzen dituen etekinek tributatu dute Egoitza atzerrian dutenen Errentaren gaineko Zergari eta Zerga Arauei buruzko abenduaren 9ko 41/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

98. artikulua. Ondare sozietateetako akzio edo partaidetzak eskualdatzea.

Ondare sozietateetako partaidetzak eskualdatzearen ondoriozko errentek honela tributatuko dute:

a) Eskualdatzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa bada, ondarearen gehikuntza edo murrizpena kalkulatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 43.1.c) artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

b) Eskualdatzailea zerga horri loturiko entitatea edo Egoitza Espainian izan gabe establezimendu finkoa dutenen Errentaren gaineko zergapekoa bada, ez da inola ere kenkaririk aplikatuko, barne plusbalioaren ezarpen bikoitza saihestearren, Foru Lege honen 59. artikuluan ezarri bezala.

Errenta horiek zehazteko, zenbatu beharreko eskuraketa balioa Zergaren sortzapen egunaren aurretik itxitako azken balantzearen ondoriozko teorikoa izanen da gutxienez, behin aktibo ez-ukituen kontabilitate balio garbia Ondarearen gaineko Zergaren eraginetarako izanen lukeen balioaz edo, txikiagoa izanez gero, merkatuan izanen lukeen balioaz ordezkatu ondoren.

Letra honetan xedatutakoa aplikatuko da ere Foru Lege honen 59. artikuluko 3. zenbakiko kasuetan.

c) Eskualdatzailea Egoitza Espainian izan ez eta establezimendu finkorik ez dutenen Errentaren gaineko zergapekoa bada, Egoitza atzerrian dutenen Errentaren gaineko Zergari eta Zerga Arauei buruzko abenduaren 9ko 41/1998 Legean ezarritakoaren arabera tributatuko du.

99. artikulua. Parte hartzaileen identifikazioa.

Ondare sozietateek kapitaleko partaidetza edo balore adierazgarriak nominatibo gisa mantendu edo nominatibo bihurtuko egin beharko dute.

Betebehar hau betetzen ez bada, Zergaren arau-hauste arintzat joko da eta 3.000tik 6.000 euro bitarteko isunarekin zehatzen ahalko da, betetzen ez deneko zergaldi bakoitzean. Sozietateko administratzaileak izanen dira erantzule subsidiarioak, salbu eta espreski aurreko lerroaldean aurreikusirikoa betetzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu dituztenak, gainerakoek onartu ez badituzte ere.”

Hamalau. 104. artikulua.

“104. artikulua. Partaidetzen eskualdaketa onoriozko errenta.

Partaidetzen eskualdaketa onoriozko errenta, zuzeneko zein zeharkakoa, kalkulatzeko, eskuratu zeneko baloreari gehituko zaio errenta positiboaren zenbatekoa, baldin eta bazkideen zerga oinarrian sartuta bazegoen, benetako banaketarik gabe, akzio edo partaidetzen ondoriozko errenta gisa, erosi eta eskualdatu bitarteko aldira.

Foru Lege honetan xedatutakoaren arabera ondare sozietateetat hartu behar diren sozietateen kasuan, zenbatu beharreko eskuraketa balioa Zergaren sortzapen egunaren aurretik itxitako azken balantzearen ondoriozko teorikoa izanen da gutxienez, behin aktiboaren kontabilitate balio garbia Ondarearen gaineko Zergaren eraginetarako izanen lukeen balioaz edo, txikiagoa izanez gero, merkatuan izanen lukeen balioaz ordezkatu ondoren.”

Hamabost. 1. X. tituluko IV. kapitulua.

“IV. KAPITULUA

Interes ekonomikoko batasunak, bai espainiarrak bai europarrak, eta enpresen aldi baterako elkarteak

107. artikulua. Espainiako interes ekonomikoko batasunak.

1. Apirilaren 29ko 12/1991 Legeak araututako interes ekonomikoko batasunei Zerga honen gaineko arau orokorrak aplikatuko zaizkie honako zehaztapen hauekin:

a) Entitate horiek ez dute tributatuko Sozietateen gaineko Zergagatik Espainian egoitza duten kideei egotz dakiekeen likidazio oinarriaren zatigatik.

Entitateak Foru Lege honen 73. artikuluan araututako ordainketa zatituen bigarren modalitatea hautatzen badu, kenkariaren kalkuluan ez da sartuko kideei egozten ahal zaien likidazio oinarriaren parte. Foru Lege honen 74. artikulua aipatzen duen parte horren gaineko itzulketa ez da inola ere bidezkoa izanen.

b) Espainiako lurraldean bizi diren bazkideei hauek egotziko zaizkie:

a) Entitate horiek lortutako likidazio oinarriak, positiboak zein negatiboak. Likidazio oinarri negatiboak eskuratu zituen entitateak ezin izanen ditu konpentsatu, bere kideendako egozgarriak badira.

b) Kuotako kenkari eta hobariak, entitateak horretarako eskubidea badu. Horri dagokionez, kenkariak eta hobariak bazkideen likidazioan sartuko dira, eta kuota gutxituko da Zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauari jarraikiz.

c') Entitatea ukitzen duten atxikipeak eta kon-turako sarrerak.

2. Egoitza Espainian ez duten enpresen bazki-deei dagozkien dibidendu eta mozkinetako partai-detzek kontzeptu horregatik tributatu dute, Espainian egoitzarik ez dutenen Errentaren gaine-ko Zergari buruzko Legean ezarritako arauen eta Espainiak zergak bi aldiz ordaintzea saihesteko izenpeturiko hitzarmenen arabera.

3. Zerga oinarria egozten zaien bazkideen mozkinetako dibidenduek edo partaidetzek, entita-tea araubide honen pean zegoen zergaldietakoa izanez gero, ez dute tributatu Zerga honen ara-bera, ez eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaine-ko Zergaren gainean ere.

Dibidendu edo mozkinetako partaidetzen zen-batekoa ez da sartuko egozten zaizkien bazkide-en partaidetzen erosketari balioan. Likidazio oinarri positiboaren egozteari jasan behar duten bazkide-ek egotzi eta gero partaidetzak eskuratzen dituz-tenean, zenbateko horretantxe gutxituko da haien erosketari balioa.

Araubide honi loturiko entitateen kapitaleko partaidetzen, fondo propioen edo emaitzen eskualdaketan, eskuraketaren balioa sozietate mozkinen zenbatekoan gehituko da, mozkinen banaketa eraginkorrik gabe, bazkideei eskuratzetik eskualdaketarako denboraldian euren partaide-tzen errenta gisa egotzi bazaizkie.

4. Zerga araubide hori ez da aplikagarria iza-nen zergaldi batzuetan, hain zuzen ere, Elkargoek xede ez dituzten beste jarduerari batzuk egiten dituztenean edo, zuzenean edo zeharka, kide dituzten sozietateetan partaidetzak dituztenean, edo zuzenean edo zeharka, beren bazkideen edo hirugarrenen jarduerak zuzendu edo kontrolatzen dituztenean.

5. Elkargoko bazkideek beren kontabilitate erregistroetan kontu guztiz bereiztuak eduki beharko dituzte, elkargoaren xedea burutzearen ondorioz harekin dituzten harremanak erakusteko.

6. Foru Lege honen 17. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, bertan aipatzen diren aktiboak errentan eman beharko zaizkie interes ekonomikoko elkartei loturik ez dauden hirugarrenei, eta beharrezkoa izanzen da aktiboek elkarte horren jarduerari ukitzea eta baz-kideek errentamendu hori bukatzen den zergaldia-ren amaiera bitarte mantentzea partaidetza.

108. artikulua. Europako interes ekonomikoko batasunak.

1. Europako Elkarreketako Kontseiluak uztaila-ren 25ean eman zuen 2137/1985 Erregelamen-duaren bidez arauturiko Europako interes ekono-mikoko batasunei, eta haien bazkideei, aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzen ahalko zaie, berezitasun hauek berezitasun:

a) Ez dute Sozietateen gaineko Zergagatik tri-butatu. Entitate horiek ez dute Foru Lege honen 73. artikuluan aipatutako ordainketa zatikaturik egiten, eta ez da bidezkoa izanzen ere 74. artiku-luko itzulketa.

b) Entitateak Espainian egoitzarik ez badu, Espainian bizi diren haren bazkideek, Nafarroako Ogasun publikoan tributatu gero, Sozietateen gaineko Zergaren edo Pertsona Fisikoen Errenta-ren gaineko Zergaren zerga oinarrian sartuko dute Batasunean finkatutako etekin edo galerei dago-kien parte. Kasua bada, etekin edo galera horiek zuzenduko dira, zerga oinarria kalkulatzeko ezarri-ta dauden arauak aplikatuz.

Bazkideek batasunaren bidez egiten duten jar-duerarako beharrezkoa bada atzerrian establezi-mendu finko bat izatea, Sozietateen gaineko Zer-gan edo Espainiak nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko sinaturiko hitzarmenean ezarritako arauak aplikatuko dira.

c) Espainian egoitzarik ez duten bazkideak, haien entitatea Espainian egon edo atzerrian egon, Egoitza atzerrian dutenen Errentaren gaine-ko zergapekoak izanzen dira, baldin eta, Egoitza atzerrian dutenen Errentaren gaineko Zergari eta Zerga Arauei buruzko abenduaren 9ko 41/1998 Legearen 12. artikuluan edo nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenean ezarritakoaren arabera, batasunaren bidez egiten den jarduerari horrek atzerriko establezimendu finkoaren beharra sortzen badu.

d) Egoitza atzerrian duten eta Egoitza atze-rrian dutenen Errentaren gaineko Zergapekoak diren bazkideei egotzitako etekinek ez dute haien banaketa dela-eta tributatu beharko.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako araubidea ez da aplikatzeko izanzen zergaldi batzuetan, hain zuzen ere Europako ekonomi intereseko Elkargoak bere xede ez beste jarduerak egiten dituen horietan edo 2137/1985 Erregelamendu-aren 3. artikuluko 2. zenbakian debekaturik dauden jarduerak egiten dituen horietan.

3. Europako interes ekonomikoko batasuneta-ko kideek aurreko artikuluko 5. zenbakian ezarri-koa bete beharko dute.

109. artikulua. Enpresak aldi baterako batzea.

1. Maiatzaren 26ko 18/1982 Legean araututako eta horretarako sortutako erregistroan sartutako enpresen aldi baterako batasunek, bai eta haien enpresa kideek ere, Foru Lege honen 107. artikuluan ezarritakoari jarraikiz tributatuko dute.

Atzerrian diharduen enpresen aldi baterako batasuneko kideek lotzen ahalko diote salbuespen metodoari atzeritik datozen errentengatik.

2. Atzerrian egin edo ematen diren obra, zerbitzu edo horniduretan parte hartzen duten entitateek, aldi baterako batasunen antzeko lankidetzak moduen arabera, atzeritik datozen errentei buruz salbuespena gozatzen ahalko dute.

Entitateek Ekonomi eta Ogasun Departamentuari eskatu beharko diote salbuespena, eta Espainian egoitza duten enpresen aldi baterako batasunei eskatzen zaizkien antzeko argibideak aurkeztuko dituzte.

3. Salbuesteko harturiko erabakiak aldi baterako batasuna iraungi arte aplikatzera behartuko du. Aldi baterako batasunak lorturiko errenta negatiboa enpresa kideen zerga oinarrian sartuko da. Halakorik gertatuz gero, hurrengo ekitaldietan aldi baterako batasunak errenta positiboak ateratzen dituenean, kide diren enpresek beraien zerga oinarrian aurretik egotzitako errenta negatiboa sartuko dute, izaera positiboarekin, aipatu errenta positiboaren mugarekin.

4. Artikulu honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko subjektu pasiboak xede soziala ez beste jarduerak egiten dituen zergaldietan.

5. Enpresen aldi baterako batasunetako kideek haien zerga zorrengatik solidarioki erantzunen dute. Kideen erantzukizuna batasunarenaren subsidiarioa da.

6. Aldi baterako batasunetako kideek 107. artikuluko 5. zenbakian xedaturikoa bete beharko dute.

109 bis artikulua. Egozte irizpideak.

1. Kapitulu honetan aipatutako egozpenak araubide honen pean dagoen entitatearen zergaldia bukatzen den egunean bazkide edo enpresa kide izaerari dagozkion eskubide ekonomikoak dituzten pertsona edo entitateei eginen zaizkie, entitatea eratzeko eskrituraren ondoriozko proportzioan eta, halakorik ezean, zati berdinetan.

2. Egozpena honela eginen da:

a) Bazkide edo enpresa kideak kapitulu honetan ezarritako araubidepeko entitateak diren

kasuetan, osatzen duten entitatearen zergaldia bukatzen den egunean.

b) Gainerako kasuetan, berriz, hurrengo zergaldian, salbu eta araubidepeko entitatearen ekitaldia bukatu ondoren jarraian egitea erabakitzen bada.

Egiten den aukera adierazi beharko da ondorioak eraginen dituen Zergaren lehenbiziko aitorpenean, eta hiru urtez mantenduko.

109.3 artikulua. Bazkide edo enpresa kideen identifikazioa.

Kapitulu honetan xedatutakoa aplikatzekoa duten entitateek aurkeztu beharko dute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko aitorpenarekin batera, zergaldiaren azken egunean bazkide edo enpresa kide izateari atxikitako eskubideak dituzten pertsonen zerrenda. Halaber, aurkeztu beharko dute entitate horien emaitzetan bakoitzak duen portzentajea."

2. X. tituluan honako izendapen hau kendu da:

"V. KAPITULUA

Enpresak aldi baterako batzea"

Hamasei. 117.2.e) artikulua. f) letra gehitzea.

"e) Interes ekonomikoko batasunen, espainiar zein europarren, enpresen aldi baterako elkarten eta ondare sozietateen araubide bereziaren pean ez egotea.

f) Espainian egoitzarik ez duten entitateen establezimendu finakoak izanez gero, entitate horiek ez izatea entitate nagusia izateko baldintzak betetzen dituen eta egoitza Espainian duen beste baten menpekoak, eta bizi diren herrialde edo lurraldearekin Espainiak ezarpen bikoitza saihesteko Hitzarmena (informazio trukerako klausularekin) izatea."

Hamazazpi. 139.3.a) a') artikulua, bigarren lerroaldea.

"Orobat, aipatu diferentzia kentzen ahalko da bi kasu hauetan: beste hainbesteko zenbateko bati, partaidetzaren eskualdaketarekin erdietsitako etekinaren tributua gisa, zerga honen izaera bera edo antzekoa duen beste bat aplikatu bazaio, eta eskualdaketa Europako Batasuneko kide den beste Estatu bateko entitate egoiliar batek egin badu, betiere, entitate hori erregelamentuetan zerga paradisutzat hartutako herri edo lurralde batean bizi ez bada."

Hemezortzi. 144.1.c) a') artikulua.

"a') Gizarte kapitala ordezkatzeko duen entitatea Espainian izatea egoitza, eta harendako apli-

kagarri ez izatea Foru Lege honetan aurreikusitako interes ekonomikoko batasunen, espainiar zein europarren, enpresen aldi baterako elkarteen eta ondare sozietateen araubide berezia.”

Hemeretzi. 147.1. artikulua.

“1. Egoitza Espainian ez duten entitateen berezko funtsen ordezkagarri diren baloreen kudeaketa eta administrazioa lehendabiziko helburu soziazat duten entitateek, beharrezko giza baliabide eta materialen antolaketaren bidez, kapitulu honetan ezarritako araubideari heldu ahal izanen diote.

Balore atzerritarren edukitzako entitateen kapitaleko balore edo partaidetza ordezkagarriak izendunak izanen dira.

Interes ekonomikoko batasunen, espainiar zein europarren, enpresen aldi baterako elkarteen eta ondare sozietateen araubide bereziaren pean dauden entitateak ezin izanen dira kapitulu honetan ezarritako araubidez baliatu.”

Hogei. 159.1.c) artikulua.

“c) Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementuetatik heldu diren ondare-gehikutzatza eta murrizketak.

Establezimendu iraunkorrari atxikitako ondare-elementutzat joko dira haren xede den jarduera burutzeari funtzionalki lotzen zaizkionak.

Erakunde baten fondo berekietako parte hartzea ordezkatzan duten aktiboak establezimendu finkoari lotutako ondare elementutzat joko dira soilik establezimendu hori Merkataritzako Erregistroan inskribatutako sukurtsala bada eta, horretaz gain, erregelamenduak ezarritako baldintzak betetzen badira.”

Hogeita bat. 162. artikuluko 2, 3 eta 4. zenbakiak.

“2. Horretaz gain, erakunde ez-egoiliarren establezimendu finkeok eskuratutako errentak atzerrira eramaten direnean, zergapetze osagarria ezartzen ahalko zaie, 100eko 15eko karga-tasarekin, establezimendu finkeoen errenten kargura transferitutako kopuruei, Foru Lege honen 161.1.a) artikulua aipatzen dituen ordainketak barne, betiere, establezimendu finkeoen zerga oinarria ezartzeko gastu kengarriak izan ez badira.

Araubide komunak establezimendu finkorik gabe lortutako errentendako ezarri duen modu eta epeetan burutuko da zergapetze osagarri hori aitortu eta sartzea.

3. Zergapetze osagarria ez da aplikatuko:

a) Europako Batasuneko kide den beste Estatu batean zerga-egoitza duten erakundeek establezimendu finkeoen bitartez erdietsitako errentei.

b) Espainiarekin ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmena sinatu duen Estatu batean zerga-egoitza duten erakundeek establezimendu finkeoen bitartez erdietsitako errentei. Dena den, baldintza izanen da hitzarmen horretan espresuki besterik ez ezartzea, eta bi herrialdetan berdina izatea.

4. Zergaren kuota osoan aplikatzen ahalko dira:

a) Zergaren araubide orokorrean aplikatu daitezkeen hobari eta kenkariak.

b) Egindako konturako dirusarreraren eta zatikako ordainketen eta establezimendu iraunkorrari egin zaizkion atxikipenen zenbatekoa.”

Hogeita bi. Hamaikagarren xedapen gehigarria eranstea.

“Hamaikagarrena. Erreskate-eskubidea aseguru kolektiboko kontratuetan, hots, enpresek, Pentsio Plan eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen lehen xedapen gehigarrian agindu moduan, pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan.

Pentsio Plan eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen lehen xedapen gehigarrian agindutakoaren arabera enpresek pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuetan, erreskate-eskubidea erabiltzearen ondoriozko errenta ez da, kasuan kasuko baliabide ekonomikoaren titularraren arabera, Sozietateen gaineko Zergapekoa edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergapekoa izanen, honako kasuetan:

a) Polizan gauzatutako konpromisoen sarrera oso edo hein betekorako, lehen xedapen gehigarri horretako baldintzak betetzen dituen beste aseguru-kontratu batean.

b) Lan harremana eteten bada langileak dituen eskubideen aseguru kolektiboko beste kontratu baten sarerarako, jatorrizko aseguru-kontratuari jarraikiz.

Aurreko a) eta b) letretako kasuek ez dituzte primak aldatuko enpresaren zerga egozpenari dagokionez, ez eta jatorrizko aseguru-kontratuan ordaindutako primen antzinasunaren neurketa ere. Hala ere, aurreko b) letran ezarritako kasuan, primak zergapetu ez badira, mobilizazio hau dela-eta, enpresak prima horiek kendu ahal izanen ditu.

Pentsio Plan eta Fondoak arautzen dituen ekainaren 8ko 8/1987 Legearen lehen xedapen gehigarrian agindutakoaren arabera pentsioengatik hartutako konpromisoak gauzatzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuen etekinak partitzaeren ondoriozko errenta ere ez da Sozietateen gaineko zerga edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergapekoa izanen, baldin eta etekineta-ko partaidetza hori kontratuetan aseguraturatuko prestazioak handitzeko erabiltzen bada.”

4. artikulua. Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.

Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aitzina, apirilaren 26ko Legegintzako 129/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren xedapenen testu bategineko manuak, ondotik heldu direnak, honela erre-daktatuko dira:

Bat. 10.1. artikulua.

“1. Administrazio emakidek tributatuko dute, kasu guztietan, eta eskubideak diren heinean, 8.1.c) artikuluan ezarritako karga-tasarekin, haien izaera, iraupena eta egokitzen zaizkien ondasunak edozein direla ere.”

Bi. 12.1.1. artikulua.

“1. Sozietateen kapitala eratu, gehitu edo gutxitzeko egintzak eta sozietateak batu, erdibitu eta desegitekoak.

Sozietateak batu eta erdibitzeko egintzat hartuko dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 133. artikuluko 1, 2, 3 eta 5. idatz-zatietan eta 144. artikuluan definitutakoak”.

Hiru. 20. artikulua.

“20. artikulua.

1. Kopuru edo gauza baloragarria zuzeneko helburu duten eskitura publikoen lehenbiziko kopietan balio deklaratu hartuko da oinarri, Administrazioaren egiaztapena ezertan galarazi gabe.

Bermearen eskubide errealetan eta mailegu bermedunak jasotzen dituzten eskriturretan, bermatutako obligazio edo kapitalaren zenbatekoak osatuko du zerga oinarria. Haren barnean egonen da korritu, kalteordain, ez betetzea dela-eta ezarritako zigor edo antzeko kontzeptuengatik aseguraturatutako kopurua. Bermearen zenbatekoa espresuki adierazten ez bada, kapitala eta korrituen hiru urte hartuko dira oinarritzat.

Hipoteken edo beste edozein berme-eskubidearen geroratze eta maila hobetzean, zerga oinarria osatuko du maila okertzen duen eskubideari atxikitutako erantzukizun guztiak. Maila berdintzerakoan, zerga oinarria zehaztuko da lehenbizi ezarritako berme-eskubideari dagokion erantzukizunaren zenbateko osoaren arabera.

2. Akta notarialetan aurreko idatz-zatian agindu dena begiratuko da, protestokoetan izan ezik, horietan zerga oinarria protestatutako efektuaren edo protestoa sortu duen dirutzaren balio nominalaren herena izanen da.

3. Egintza gai baloragarririk gabekoa dela juzkatuko da baldin eta indarraldi guztian, bai eta iraungitzean ere, ezin bada oinarriaren zenbatekoa finkatu. Oinarri hori ezin bada egintza egiten denean finkatu, gai ez baloragarrien kasuan bezala eskatuko da zerga, zenbatekoa finkatzen denean likidazioa osatzea ezertan galarazi gabe.

Lau. 22.2. artikulua.

“2. Eskrituren eta notario akten lehenbiziko kopiek 100eko 0,5eko karga-tasa ordainduko dute xedea baloratzen ahal den kantitate edo gauza denean, Jabetza, Merkataritza, Industri Jabetza eta Ondasun Higiezinaren Erregistroetan inskribatu beharreko baina Ondorengotza edo Dohaintzaren gaineko Zergaren xede edo Foru Lege honen 1. artikulua 1.atalaren 1 eta 2. zenbakietan adierazitako kontzeptuetakoak ez diren egintza edo kontratuak dituztenean, egintza edo kontratu diren aldetik. Tasa bera ordainduko dute protesto-akten kopiek.”

Bost. 35.I.B) 13. artikulua.

“13. Babes ofizialaren erregimeneko etxebizitzak eraikitze asmoarekin eskualdatzen diren orubeak eta lagatzen diren lurren gaineko eskubideak; babes ofizialeko etxebizitzekin zerikusia duten egintzak eta kontratuak formalizatze eskuesten diren eskritura publikoak, egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari dagokionean; babes ofizialeko etxebizitzaren jabetzaren "inter vivos" lehen eskualdaketa, baldin eta behin betiko kalifikazioaren egunetik zenbatu beharreko sei urteen barruan gertatzen bada; behin betiko kalifikazioa eduki baino lehen eraikitze eskatzen diren maileguak, hipotekoak zein beste; xede bakartzat babes ofizialeko erregimeneko eraikinak sustatu edo eraikitzea duten sozietateen eraketa, kapital zabalketa, eraldakuntza eta bategitea.

Orubeak eskualdatu eta lurren gaineko eskubideak lagatzearen ondoriozko etekinak aitortzeko, nahikoa izanen da kontratuan adieraztea haren xedea babes ofizialeko etxebizitzak egitea dela.

Aitorpen hori egiten denetik hiru urte iragaten badira behin-behineko kalifikazioa eskuratu gabe, ondorioz gabe geldituko da.

Exentzioa behin-behinekoa izanen da eta etxebizitza mota horren gainean xedapen indardunek kasuan kasu agintzen dutena betetzeari lotua.”

Sei. 35.II.18. artikulua.

“18. Nafarroako Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen Testu Bategina uztailaren 2ko Legegintzako 150/2002 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Honako gai hauek jorratzen ditu: edozein tituluren bidez egindako “inter vivos” edo “mortis causa” motako eskualdatze edo eskuratzeko, nekazaritzako ustiategien erabateko jabetza edo biziarteko usufruktua, landalurren borondatezko trukaketa eta mailegu hipotekarioen eraketa, aldaketa edo deuseztapena.”

Zazpi. 38. artikulua.

“38. artikulua.

1. Preskripzioa Tributuei buruzko Foru Legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz arautuko da.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa deusetan galarazi gabe, likidatzeko aurkezten diren agirietan, preskripzioa gauzatzeko, pribatuak baldin badira aurkezpenaren eguna hartuko da kontuan, aurretik Kode Zibilarren 1227. artikuluan ezarritako inguruabarretako bat gertatzen ez bada, kasu horretan kontatuko baita sartu, inskribatu, hil edo eman zeneko eguna.”

Zortzi. IV. tituluko IV. kapituluaren izendapen berria. Kapitulu horretan sartuko dira egun 39. eta 40. artikulua direnak.

“IV.KAPITULUA. Beharkizun formalak”

Bederatzi. IV. tituluaren V. kapitulu bat sortzea, egungo 41. artikulua hartuko duena.

“V. KAPITULUA. Itzulketak.”

Hamar. IV. tituluaren VI. kapituluaren sortzea.

“VI. KAPITULUA Zergaren kudeaketa

42. artikulua.

1. Zerga kudeatu, ikuskatu, likidatu eta dirua biltzeko eskumena, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren gain geldituko da.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, zergaren kudeaketarako, gizarte lankidetzako hitzarmenak gauzatzen ahalko ditu gizarte, lan,

enpresa edo lanbide interesen edo sektoreen ordezkari diren instituzio eta erakundeekin.

43. artikulua.

Foru Lege honetan araututako zergaren ordainketa Nafarroako Foru Komunitateko Zerga-billetari buruzko Erregelamenduan finkatutako epeetan egin beharko da.

44. artikulua.

Aplikagarriak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Zerga-billetari buruzko Erregelamenduan ordainketa geroratu eta zatikatzeari buruz ezarritako arauak.”

Hamaika. IV. tituluaren VII. kapituluaren sortzea.

“VII. KAPITULUA Arau-hausteak eta zehapenak

45. artikulua.

Foru Lege honetan erregulatutako zergaren arau-hausteak kalifikatu eta zehatuko dira Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoaren ariora.”

5. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Oinordetzen, Ondare-eskualdaketen eta Egin-tza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak onesten dituen 1970eko apirilaren 10eko Foru Diputazioaren Erabakian, 29. artikuluko 1. zenbakian, c) letra erantsi da. Hona hemen haren edukia, ondorioak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dituena:

“c) Hildako pertsonaren ezkontideek, bikote egonkorretako kideek, odolkidetasunaren linea zuzeneko aurrekoek edo ondorengoek, adoptatzaileek, adoptatuek edo alboko ahaideek (hirugarren graduak barne) enpresa indibidual, lanbide negozio edo erakundeetako partaidetzak “mortis causa” eskuratzeko, baldin eta, partaidetza horiei dagokienez, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33. artikuluko 1. zenbakiaren b) letrako baldintzak betetzen badira. Era berean, biziarteko eskubideen oinordetzen bidezko eskurapena salbuetsita egonen da.”

Salbuespen hori lortzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kausatzaileak berak zuzenean jarduera modu iraunkorrean egitea, zerga sortu aurreko bost urteetan, edo, letra honetan aipatutako erakundeetako partaidetzen kasuan, hil baino bost urte lehenago, kausatzaileak horiek erosi eta erakundeak denbora horretan jarduera egin izana,

edo bestela, epe hori osatzen bada hildakoaren jarduera aldia eta hil ondoren negozioa hartu duen erakundearen jarduera aldia batuz gero.

b') Eskurapena edukitzea kausatzailea hil ondoko hurrengo bost urteetan, salbu eta eskuraztailea ere epe horren barrenean hiltzen bada.

c') Eskuratzailleak xedapen-egintzarik edo sozietate-eragiketarik ez egitea, zuzenean nahiz zeharka, eskurapen balioaren murrizpen nabarmena sortzen badute. Dena den, frogagirien bidez egiaztatzen den kasuetan, eta aipatu murrizketarik gertatzen ez bada, benetako subrogazioa onetsiko da.

Aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez bada, exenzioaren ondorioz sartu ez zen zergari dagokion zenbatekoa pagatu beharko da berandutze korrituekin batera.

Horretarako, enpresa indibidual edo lanbide negoziotzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 33. artikulua aipatutako enpresa- edo lanbide-jardueren araubidepeko ondare elementuen multzoa."

6. artikulua. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren aldaketa.

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen artikulua hauek honela erredaktatuko dira:

Bat. 27. artikulua. 3. idatz-zati berri bat erantsi da, eta orain arteko 3.a 4.a izanen da. Hona hemen:

"3. Aitorpen-likidazioak, autolikidazioak edo informazio aitorpenak euskarri informatikoan aurkeztu behar dituzten subjektu pasiboek aitorpen horiek egiteko erabili dituzten programen eta fitxategien kopia gorde beharko dute.

4. Aurreko 2. eta 3. idatz-zatiek aipatu dituzten betebeharrak, osagarri diren neurrian, ezin eskatuko dira behin obligazio nagusia betetzeko administrazio egintzaren preskripzio epea iragan ondoren."

Bi. 70.2. artikuluari beste lerroalde bat gehitzea.

"Zerga egoera egiaztatu eta aztertzekeo prozeduren ondorioz ireki beharreko zehapen prozedurak ezin izanen dira hasi, dagokien likidazioa jakinarazi edo jakinarazitzat hartu behar denetik hiru hilabete igaro badira."

Hiru. 132.1. artikulua.

"1. Zergagaiarekin zerikusia duten tributudunaren liburuak eta dokumentazioa, programa informatikoak eta euskarri magnetikoko artxiboak barne, Tributu ikuskatzaileek aztertuko dituzte haren etxean, lokalean, despatxuan edo bulegoan, hura bertan dela edo haren ordezkoa.

Dena den, interesatuak edo haren ordezkariak adostasuna agertu ondoren, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko bulegoetan aztertzen ahalko dira. Kasu guztietan Tributu ikuskatzaileek aipatutako liburu eta agirien kopiak beren bulegoetan aztertzen ahalko dituzte.

7. artikulua. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Lizentzia Fiskalaren tarifak eta instrukzioa.

1. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifak aldatuko dira. Tarifa horiek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen I. eranskinak biltzen ditu. Hona hemen aldaketak:

1. Lehen sekzioko 069 multzoa aldatuko da.

"069 multzoa. Abeltzaintzako beste ustiategi batzuk.

66,95 euroko kuota.

Oharra: multzo horretan sartu dira dibisio honetan zehaztu gabeko abeltzaintzako ustiategiak, hala nola, serikulturakoak, larrugintzarako animalien hazkuntzarakoak, ihiziak gatibualdian haztekoak, laborategiko animaliak haztekoak, marraskiloak, e.a."

2. Lehen ataleko 761. multzoa aldatuko da.

"761 multzoa. Zerbitzu telefonikoak.

761.1 epigrafea. Telefonía finkoko zerbitzua.

Kuota:

Udalaren gutxieneko kuota:

– 1.000 abonodun edo zatikiko: 60,10 euro.

Lurralde kuota:

– 1.000 abonodun edo zatikiko: 132,82 euro.

Kuota nazionala:

– 1.000 abonodun edo zatikiko: 132,82 euro.

761.2 epigrafea. Telefonía mugikorrekoko zerbitzua.

Kuota nazionala:

– 1.000 abonodun edo zatikiko: 1.260,77 euro.

Oharra: Abonodunen kopurua kalkulatzeko, telefonia mugikorreko operadore bakoitzaren bezero guztiak kontuan hartuko dira.”

3. Lehenbiziko ataleko 912 multzoko tituluaren eta oharraren aldaketa.

“912 multzoa. Oihangintzako zerbitzuak eta arrantzarekin eta akuikulturarekin zerikusirik dutenak.”

“Oharra: multzo horren barnean sartuko dira oihangintzako zerbitzuak, ustiategien titularrak ez diren beste pertsona edo entitate batzuk eman eta normalean oihangintzako ustiategian berean egiten direnak, hala nola, plagen kontrako borroka, suteen kontrako defentsa, e.a. Era berean, multzo horretan berean sartuko dira arrantzarekin eta akuikulturarekin zerikusirik duten eta ustiategien titularrak ez diren beste pertsona edo entitateek emandako zerbitzuak.”

4. “Arrantzarekin eta akuikulturarekin zerikusirik duten zerbitzuak” izeneko multzoa, lehen ataleko 913 multzoa, kendu da.

2. Subjektu pasiboek, aurreko idatz-zatian ezarritako aldaketan ondorioz Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruz duten egoera aldatzen baldin bazaie, dagokien aitorpena aurkeztuko dute Jarduera Ekonomikoen edo Lizentzia Fiskalaren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dituen azaroaren 11ko 614/1996 Foru Dekretuaren 5., 6. edo 7. artikuluei jarraikiz.

3. “Langile kopurua” tributu elementua.

Tarifaren kuota, besteak beste, “Langile kopurua” tributu elementuak zehazten duen kasuetan, eta betiere elementu hori langile bakoitzak ordaindu beharreko zenbateko finkotzat ulertzen bada, ez da aplikatuko tributu elementu horri dagokion kuotaren zatia.

4. “Lokalen azalera” tributu elementua.

“Lokalen azalera” tributu elementua kalkulatzeko, ez konputatzeaz gain, zergapetutako jarduerak ukitzen dituen elementuei dagokien azalera kenduko da:

– Subjektu pasiboaren langileen edo bezeroen seme-alabendako haurtzaindegietarako edo haien zainketarako lekuen azalera.

– Subjektu pasiboaren langileen jarduera soziokulturaletarako lokalen azalera.

Arestian xedatutakoa aplikatuko da ere kuotak zehazteko, baldin eta kuota horiek kalkulatzeko, zergaren tarifek berriaz kontuan hartu badute tri-

butu elementu gisa jarduerak egiten diren lokalen azalera, metro karratutan adierazia.

Xedatutakoaren arabera kengarritzat har daitekeen azalera ez da zergapetutako jarduerak zuzenean ukitzen dituen elementuei dagokien azalaren % 10 baino gehiagokoa izanen.

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen aldaketa.

2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen ondoko artikuluek honako idazketa hau izanen dute:

Bat. 31.b) artikulua.

“b) Hautapen proben deialdia egin aurretik hilabetez edo luzaroago lan-eskatzaille gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hau izateko baldintza izanen da kasuko epean eskaintako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo eraberritze ekin-tzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikatutako arrazoia izan ezean, eta, halaber, hilabetean lanbidearteko gutxiengo lansaritik goragoko errentarik ez izatea.”

Bi. 87. artikuluko 1. tarifa.

“1. TARIFA.- Ehizerako lizentzia: 66,65 euro bost urteko iraunaldirako, edo 13,33 euro urteko.”

Hiru. 103.2 artikuluko G) letra.

	Euroak
G) Osasun produktuak:	
Optikak eta Botiketako optika atalak jartzeko baimena:	180
Audioprotesien zentroak ezartzeko baimena:	180
Ortopediak jartzeko baimena:	180
Osasun produktuen banatzaileentzako baimena:	180
Osasun produktuen publizitaterako baimena:	90
Neurrirako osasun produktuen fabrikaziorako funtzionamendu baimena:	
– Ematea:	550
– Baliozkotzea:	400
– Aldatzea:	200
Ikuskapen arautua edo norbaitek eskatutakoa:	60

Lau. 119. artikuluari 5.5.3 tarifa berria gehitzea.

	Euroak
5.5.3. Gidari ziurtagiria emateagatik:	18

9. artikulua. Nafarroako lurralde aberastasunaren erregistro fiskalari buruzko martxoaren 10eko 3/1995 Foru Legearen aldaketa.

Foru Lege honek indarra hartzen duenetik ondorioak izanen dituztela, Nafarroako lurralde aberastasunaren erregistro fiskalari buruzko martxoaren 10eko 3/1995 Foru Legearen ondoko manuak honela erredaktatuko dira:

Bat. 7. artikulua.

“7. artikulua. Unitate higiezinaren balioa.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko ondasun higiezinaren balioa finkatuko da haien merkatuko balioa erreferentziatzen hartuta, eta ezin izanen da inolaz ere hura baino altuagoa izan.

Aurreko lerroaldean hori xedatu arren, babes ofizialeko etxebizitzaren balioa, borondatez deskalkifikatu ezin den epean, eta epe horretan zehar babeseko araubidepean mantentzen badira, ez da izanen araubide hori erregulatzen duen araudiak zehaztutako gehieneko prezioa baino altuagoa.”

Bi. III. kapitulua

“III. KAPITULUA

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalaren Publikotasuna

18. artikulua. Erregistroaren publikotasuna eta babestutako datuak.

1. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala publikoa da bertan inbentariatutako ondasun higiezinaren gaineko datuak ezagutzeko, Foru Lege honetan agindu bezala, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko manuei jarraikiz.

2. Datu babestutzat hartuko dira zerga titularitasuna eta hari lotutako beste edozein datu, bai eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalean inbentariatutako ondasun higiezinaren balioa ere.

3. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalaren eta Udaletako katastroen artean egun dagoen koordinazioaren arabera, katastroetako datu babestutzat hartuko dira Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datu babestuen homologoak.

19. artikulua. Erregistroko datuak eskuratzea.

1. Datuak eskuratzea.

a) Edonork eskuratzen ahalko ditu erregistroko datuak, baldin eta bertan babestuta ez badaude.

b) Zerga titularrek beren izenean dauden unitate higiezinaren gaineko informazio guztia eskuratzen ahalko dute.

2. Datuak eskuratzea, zerga titularren baimenaz.

a) Artikulu honen 3. eta 4. idatz-zatietan xedatutakoa deusetan galarazi gabe, datu babestuak kontsultatuko dira soilik zerga titularren baimen espresua, berariazkoa eta idatzia baldin badago.

b) Unitate higiezinak bi titular edo gehiago badituzte, nahikoa izanen da zerga titularretako bakar baten baimen espresua, berariazkoa eta idatzia.

3. Datuak eskuratzea, zerga titularren baimenik gabe.

Erregistroko datuak zerga titularren baimenik gabe eskuratzen ahalko dira, legeren batek espresuki baztertzen badu baimen behar hori edo informazioa eskatzen bada legezko interes zuzeneko kasu hauetakoren batean:

a) Jaraunsleak eta oinordekoak, erregistroan bildutako kausatzailearen unitate higiezinari buruz.

b) Benetako transzendentziako, errentamenduko edo lur banaketako eskubideen titularrak, eskubide horiei dagozkien unitate higiezinari buruzkoak.

c) Zerga titularrak, alboetako unitate higiezinak identifikatzeko. Dena den, haien balioa ezin izanen dute jakin.

d) Notarioak eta jabetzaren erregistratzaileak, Foru Lege honetan ezarritakoa bete eta betearazteko eta, orohar, finkak identifikatzeko.

e) Historiako, zientziako edo kulturako ikerketa proiektuetako parte hartzaileak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimena eman ondoren. Proiektuek behar dute unibertsitate edo ikerketa zentro batek sustatuak izan.

4. Administrazio Publikoek eta bestelako entitateek eskuratzea.

Ondokoek erregistroko informazio babestua eskuratzen ahalko dute ukituaren baimenik izan gabe:

a) Ekonomia eta Ogasun Departamentuko organoak, Foru Komunitateko Administrazioaren beste departamentu batzuetakoak, beste Adminis-

trazio Publikoetakoak eta Gizarte Segurantzako Entitate Kudeatzaileak eta Zerbitzu Komunak, bai eta haien eginkizun publikoak betetzeko behar duten gainerako erakunde, udalbatza eta entitate publikoak ere, baina betiere, eskumen, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioak kontuan harturik.

b) Parlamentuko ikerketa batzordeak, Arartekoa eta Kontuen Ganbara.

c) Epaileak, auzitegiak eta ministerio fiskala.

5. Datuak eskuratzea interneten bidez.

Datuak interneten bidez lortzen badira, artikuluko honetako aurreko idatz-zatietan aipatutako baldintzetan, erabiltzaileak aldeztatik bere buruaren identifikazioa egin beharko du, eta ezinbestekoa izanen da Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasuaren Zerbitzuaren baimena.

Horretarako, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eskatzen dutenei pasahitz pertsonalizatu bat emanen die, sarean sar daitezten.

20. artikulua. Herritarrek erregistrotik jasotako informazioaren edukia. Egiatagiriak. Agiri normalizatuak.

1. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan aipatutako mugak kontuan harturik, herritarrek honako informazio hau eskuratzen ahalko dute:

a) Herritarrek, behar den lekuan eta beren izena eman gabe, ondokoa kontsultatzen ahalko dute: unitate eta alor higiezinaren irudikapen grafikoa eta identifikazio eta deskripzio datuak, eta berariazko prestakuntzarik behar ez duten haien laborpen estatistikoak.

b) Eraikinen planoak, krokisak eta berariazko prestakuntza behar duten horien gaineko datuak eta laborpenak. Horretarako, eskatzaileak bere burua identifikatu beharko du eta dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.

c) Lurzati-zedula ere eskuratzen ahalko dute, beren burua identifikatu eta tasa ordaindu ondoren.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak erregistroko datuei buruzko egiatagiriak ematen ahalko ditu, Jabetza erregistroari dagozkion ondorioak deusetan galarazi gabe.

3. Foru Agindu baten bidez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak onetsiko ditu kapitulu honetako manuak betearazteko beharrezkoak diren agiri normalizatuen edukia, egitura eta eskuragarritasuna.

21. artikulua. Lurzati-zedula.

1. Lurzati-zedula Nafarroako Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskalak luzatzen duen agiria da, bertan unitate higiezinak agertzen dituen, haien ezaugarriak eta horiek biltzen dituzten lurzatiaren adierazpen grafikoa emanez.

Lurzati-zedulan agertzen ahalko dira ere unitate higiezinaren zerga titulartasunaren eta katastroko balioaren gaineko datuak, Foru Lege honen aurreko artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskalaren eta Jabetza erregistroaren arteko koordinazioaren ondorioetarako, lurzati-zedularen iraunaldia hilabete batekoa izanen da luzatzen denetik aitzina. Nolanahi ere, epe hori iragan baino lehenago ondasun horietan aldaketarik suertatzen bada eta horregatik haien datuak aldatzen baldin badira, une horretantxe iraungiko da.

Epe hori iraganik, lurzati-zedulak informazio balioa besterik ez du izanen."

Hiru. 24., 25., 26., 27., 28. eta 29. artikulua.

"24. artikulua. Koordinazioerako baliabideak.

Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskala eta Jabetza Erregistroa koordinatzeko baliabideak ondoko hauek dira:

a) Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskaleko lurzati-planoak eta dokumentazio osagarria.

Horretarako, Jabetza Erregistroek bereganatzen dezakete aipatu informazioa, haien eskumenen esparruaren barrenean, eta horretarako Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskalak igorriko dizkie behar diren formato eta euskarri egokiak, haien erraz erabili, artxibatu eta kontserbatzeko.

b) Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskalak, bidea edozein dela, ematen dituen lurzati-zedulak.

c) Jabetza Erregistroan sartutako agiri publikoak, notarialak, judizialak edo administratiboak, eta, oro har, hartan izan daitezkeen dokumentu guztiak, hipotekari buruzko legerian xedatutakoaren arabera.

25. artikulua. Koordinatzeko modua.

1. Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskalaren eta Jabetza Erregistroaren arteko koordinazioa erabatekoa izanen da, sortu behar diren ondorioetarako. Horretarako, zehaztu beharko da identifikazioa bat datorrela, kasuen arabera, honela:

a) Erregistroko finka, Nafarroako Lurralde Aberastasuaren Erregistro Fiskalean duen idazpene-

an, unitate higiezin bat edo gehiagotzat hartzen bada, zehaztu beharko da erregistroko aipamena-
ren eta unitate higiezinaren identifikazioen arteko
korrespondentzia.

b) Erregistroko idazpenaren xede den finka
unitate higiezin baten zati bada, erregistroko finka
horrek Nafarroako Lurralde Aberastasunaren
Erregistro Fiskaleko kokapen geografikoaren sis-
teman kokatuko da, baina ez da zehaztuko bere
identifikazio zehatzik edo ezaugarririk ere.

2. Identifikazio zuzena baliabide hauen bidez
eginen da:

a) Harekin muga egiten dutenak.

b) Deskribapena:

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregis-
tro Fiskaleko ondasunen deskribapena Foru Lege
honen 3. artikuluan adierazitako datuen arabera
egiten da.

Jabetza erregistroko ondasunen deskribapena
izanen da inskribatutako tituluetan ageri dena.
Foru Lege honen 27. artikuluari jarraikiz, notarioa-
ren interpretazioa erregistratzaileak baietsi edo
berraztertuko du gero.

c) Azalera: azalera aldetik diferentziarik ez
egotea, edo, baldin badaude, legeak ezarritako
mugetatik kanpo ez egotea.

d) Titulartasuna.

26. artikulua. Koordinazioaren irismena.

Nafarroako Foru Komunitateko ondasun higie-
zinei buruz inskribatzen ahal diren agiri guztiak
dira koordinazioaren helburu, eta haietan erantsi
beharko dira dagozkien lurzati-zedulak.

Halaber, koordinazioa eragiketa espezifiko
gisa egin daiteke, eta horretarako interesatuak lur-
zati-zedulak aurkeztuko ditu eta inskribatu nahi
den dokumentuan sartzeko eskatuko du, ondoko
artikuluen arabera.

27. artikulua. Lurzati-zedulen aurkezpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko ondasun
higiezinari buruzko agiri notarialak prestatzeko,
egileek egintzaren edo negozioaren xede diren
ondasun higiezinari dagozkien lurzati-zedula egu-
neratuak aurkeztu beharko dituzte. Kasu guztie-
tan, egileek notarioari jakinarazi beharko diote
zedula horiek eta ondasun zehatzak bat datozela.

2. Lurzati-zedula aurkezteko beharra ez bete-
tzea zerga arloko arau-hauste sinpletzat hartuko
da eta 6 eta 900 euro bitarteko isuna egokituko
zaio.

3. Interesatuak beharkizun hori betetzen badu,
ez du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxo-
aren 10eko 2/1995 Foru Legearen 145. artikuluan
agindutako aitorpena aurkeztu beharko, betiere,
egintza edo negozioa baldin bada ondasun higie-
zinen jabariaren eskualdaketa eta ez besterik, eta
eskritura publikoan formalizatzen bada edo Jabe-
tza Erregistroan inskripzioa egiteko eskaera egi-
ten bada delako egintza edo negozioa egin eta bi
hilabeteko epean.

Betebehar hori bete ezean, edo inguruabar
horiek gertatzen ez direnean, notarioek eta Jabe-
tzaren erregistratzaileek berariaz ohartaraziko
diote interesatuei dagozkien jabariaren eskualda-
keta deklaratu beharrak bere horretan irauten
duela.

4. Ondasun higiezinakiko eskubide errealean
edo benetako transzendentzia dutenen titularrek
aurkeztu beharko dituzte administrazio agintari
eskudunen aurrean dagozkien lurzati-zedulak,
prozedurak hasi edo ebazteko, baldin eta onda-
sun higiezin horiek Nafarroako Foru Komunitatean
badaude.

Ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia
espedienteetan eta administrazio ebazpenetan
agertuko da, zergadunak erakutsi edo aurkezten
dituen lurzati-zedulen ondorioz.

28. artikulua. Lurzati-zedula sartzea. 1. Nota-
rioak, jatorrizko agiriarekin batera, ondasun higiezin
guztien lurzati-zedulak aurkeztuko ditu. Izan ere,
aurkeztu beharreko agiri horietan jasoko dira
benetako transzendentzia duten egintzak edo
negozioak, ondasun higiezinaren jabariari eta gaine-
rako ondasun higiezinari buruzkoak, eta beste
edozein aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoa
agertzen duten agiriak. Halaber, xedapen bakoit-
zean aipatuko dira ondasunak Nafarroako Lurral-
de Aberastasunaren erregistroan dituen identifi-
kazio aipamenak. Bestetik, egileek adierazi beharko
dute dagozkien lurzati-zedulak bat ote datozen
tituluko deskribapenarekin.

Modu horretan emandako agirien lehenbiziko
kopien zein kopia soilen matrizean lurzati-zedulen
kopia ere sartuko da.

2. Foru Lege honen 24.c) artikuluan aipatzen
diren gainerako agiriak berenganatu beharko
dituzte erreferentziako ondasun higiezinaren lurzati-
zedulak.

29. artikulua. Notario bidez jaso beharrekoa.
Ohartarazpen legalak

Agiri publiko guztietan espresuki adieraziko da,
kasuan kasu, ondokoa:

1. Deskribapenari dagokionez:

a) Finkaren deskripzioa lurzati-zedularen datuekin bat datorrela.

b) Ondasun batek identifikazio diferentea badu Nafarroako Lurralde Aberastasunaren erregistroan eta Jabetza erregistroan, honela jokatu da:

Bat. Deskribapenak bat ez badatoz Nafarroako Lurralde Aberastasunaren erregistrokoa oker dagoelako, errealitatea islatzen ez baitu, orduan, notarioak egileei ohartaraziko die Foru Lege honen 14. artikuluan xedatutakoari jarraikiz jokatu behar dutela. Baina, hori egiterik ez bada, edo arrazoi teknikoak direla-eta, eskatutako zuzenketa atzeratu egiten bada, notarioak zilegi izanen du titulua formalizatzea, antzemandako akatsak eta inguruabarrak bertan adieraziz.

Bi. Egileek Nafarroako Lurralde Aberastasunaren erregistroko deskribapena errealitatearen arabera dela esanez gero, eta horko datuen eta tituluko arteko berdintasunik egon ezean, azken horretako deskribapena akasduna izateagatik, notarioak, adierazitakoa egiaztatu ondoren, finkaren deskribapena lurzati-zedularen datuetara egokituko du.

Hiru. Finkak eta bukatutako obra berriak zatitu, batu, banandu edo eransten diren kasuetan, aurreko "Bat" puntuan adierazitakoa aplikatuko da, eta tituluari eransten ahalko zaizkio jatorrizko finken lurzati-zedulak. Horren bidez eratutako titulua udalaren katastroko bulegoetan eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren erregistroan aurkeztuko da, katastroko aldaketa izapidatzeko.

2. Lurzati-zedulak aurkezteari dagokionez:

Egileek lurzati-zedularik aurkezten ez badute, ohartaraziko zaie beharrezkoa dela eta Foru Lege honen 27. artikularen arabera arau-haustea egin dutela.

3. Lurzati-zedulak sartzeari dagokionez:

Foru Lege honen 28. artikuluan agindutakoaren arabera lurzati-zedulak tituluarekin batera aurkezten ez badira, notarioak adieraziko ditu zedulak ez biltzeko arrazoiak."

Lau. 32. artikulua.

"32. artikulua. Jabetzaren erregistratzaileek egiten duten koordinazioa.

Aurreko artikuluetan aurreikusitako bezala lurzati-zeduletan sartutako datuak eta titulukoak bat datozenean, Hipotekei buruzko Legeari jarraikiz, inskripzioaren egiturari adieraziko da finka hori Nafarroako Lurraldeko Aberastasunaren Zerga Erregistroarekin koordinatuta dagoela, eta agertu-

ko dira ere ondasuna osatzen duten unitate higiezinaren identifikazio aipamenak.

Aipatu datuak bat ez datozenean edo, salbuespen gisa, indarrean dagoen lurzati-zedula erantsi ez bada, Hipotekei buruzko Legeari bat erregistratzaileak horixe idatzi beharko du inskripzioan eta koordinazioa bertan behera utzi."

Bost. 36. artikulua.

"36. artikulua. Koordinazioaren ondorioak.

1. Finka bat koordinatzeak berekin ekarriko du administrazioaren adostasuna erregistroko datu deskribatzaileekiko. Izan ere, finka koordinatuei buruzko administrazio espedienteetan, koordinazioaren ondoriozko datuak izanen dira jarduketaren oinarria.

2. Arestiko atalean xedatutakoa ezertan ukatu gabe, Jurisdikzio arrunteko Auzitegiak izanen dira finken identitate eta inguruabar fisikoen gorabeheren gainean erabakitzeke ahalmena duten baka-rak."

10. artikulua. "2004, Done Jakueren urte saindua"-ri aplikatu dakizkiokeen onura fiskalak.

1. 2003ko urtarrilaren 1etik 2004ko abenduaren 31ra bitarteko ondorioekin, Estatuko araudian jasotako "2004, Done Jakueren urte saindua"-ren inguruko onura fiskalak Foru Komunitatean ere aplikatuko dira, modu eta baldintza berberetan. Aipatu araudiak honako zerga hauetan eragiten du: Sozietateen gaineko zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga eta ekitaldi horiekin zerikusirik izan dezaketen tokian tokiko gainerako zergak eta tasak.

2. Ondorio horietarako, onura fiskal horiek aplikatu aurretik, Zerga administrazioak haien jatorria aztertu beharko du, horrek galarazi gabe administrazioaren ahalmena ondoren ere egiaztapenak egiteko.

3. Tokian tokiko zergei dagokionez, ez da aplikatuko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko mar-txoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari 57.2 artiku-luak xedatutakoa.

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa. Dirulaguntzak amatasunarengatik.

1. Familiari laguntza emateko planaren barnean honako dirulaguntza hauek emanen dira:

a) Hiru urtetik behitiko seme-alabak dituzten emakumeei, lana euren kontura egin zein bestere-

nera, Gizarte Segurantzako edo Mutualitateko araubidean alta emanda badaude, 1.200 euro urtean emanen zaizkie ume bakoitzeko. Laguntza hori Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak kudeatuko du eta langileek laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotza-tasa sustatzeko ezarritakoei jarraikiz egituratuko da.

Dirulaguntza 3 urtetan zehar emanen da, haurra jaio edo adopzioaren ebazpen judizial edo administratiboaren egunetik kontatzen hasita.

b) Lau seme-alaba edo gehiago dituzten familiak, haien errentak erregelamenduaren arabera ezarritako muga gainditzen ez badu, urtean 360 euro emanen zaizkie 18 urte baino gutxiagoko haur bakoitzeko, betiere laugarren seme-alabatik aurrera (laugarrena ere barne).

2. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari eskatzen ahalko zaio laguntza horiek denbora baino lehen pagatzeko.

Dirulaguntza horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsirik egonen dira.

Dirulaguntza horiek emateko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta behar baino lehenago jasotzeko eskaera egin eta eskuratzeko ere.

Bigarrena. Atxikipenen edo konturako sarrerentzako portzentaje batzuk Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergan.

1. Kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipen edo konturako sarrerentzako portzentajea % 15 izanen da.

2. Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo errenboltsoetatik heldutako ondare gehikuntzak direnean, konturako ordainketen portzentajea % 15 izanen da. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 52.1.a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ondare gehikuntzaren zenbaketa bidezko ez den kasuetan, ez da atxikipenik aplikatuko.

3. Ondotik ageri direnen gaineko atxikipenaren edo konturako sarrerentzako portzentajea % 15 izanen da: joku, lehiaketa, zozketa edo zorizko konbinazioetan parte hartzearen ondorioz lortutako errentak, loturik egon ala ez zenbait ondasun edo zerbitzu jakin eskaini, bultzatu edo saltzearekin.

4. Ondotik ageri direnen gaineko atxikipenaren edo konturako sarrerentzako portzentajea % 15 izanen da: jabetza intelektual eta industrialetik eta laguntza teknikoak ematek heldu direnak, zein ondasun higigarri, negozio edo meategien alokairutik,

aurreko ondasunen berralokairutik, haien kalifikazioa edozein dela, lortutakoak.

5. Portzentaje horiek aldatzen ahalko dira erregelamenduaren arabera.

Hirugarrena. Atxikipenen edo konturako sarrerentzako portzentaje berriak Sozietateen gaineko zergan.

Atxikipenen edo konturako sarrerentzako portzentajeak hauexek izanen dira:

1. Oro har, 100eko 15.

2. Irudia ustiatzeko eskubidearen edo hura erabiltzeko baimenaren lagapenak sortutako errenten kasuan, atxikipenen edo konturako sarrerentzako portzentajea 100eko 20 izanen da.

3. Portzentaje horiek aldatzen ahalko dira erregelamenduaren arabera.

Laugarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako moneta-zuzenketa-koefizienteak.

2003. urtean zehar hasten diren zergaldietarako, honako hauek izanen dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako moneta-zuzenketa-koefizienteak:

1983 eta aurrekoak	2,233
1984	2,032
1985	1,906
1986	1,821
1987	1,771
1988	1,705
1989	1,630
1990	1,570
1991	1,520
1992	1,474
1993	1,419
1994	1,369
1995	1,308
1996	1,253
1997	1,228
1998	1,215
1999	1,208
2000	1,203
2001	1,182
2002	1,170
2003	1,000

Bosgarrena. Arauen aipamenak.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen eta hura garatzeko araudian zerga

gardentasuneko araubideko entitateei buruz egindako aipamenak hauen gainekoak direla ulertuko da: Espainiako eta Europako interes ekonomikoko elkarteak eta enpresen aldi baterako batasunak.

Seigarrena. Berandutza korrituak.

2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 50.2.c) artikuluan aipatutako berandutza interesen tasa ehuneko 5,50ekoa izanen da urtean.

Zazpigarrena. Nekazaritzako kooperatibak.

Eguraldiaren inguruabarrak direla-eta, laborantzako alor batzuek kalte inportanteak jasaten dituzte. Hori horrela, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eskualde eta laborantzako lur eragindakoenak hautatzen ditu. Horregatik, 2002. urtean hasten diren zergaldietan, bereziki alor horietatik heldutako produktuak merkaturatzen duten nekazaritzako kooperatibek eskubidea izanen dute, Kooperatiben zerga araubidea erregulatzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 13. artikuluko 5. zenbakian xedatutako murrizpena egin ondoren, zerga oinarria berriro ere murrizteko, lege horren 14. artikuluko 3. zenbakian aipatutako emaitzen % 50 hain zuzen. Izan ere, legeak agintzen du nekazaritzako kooperatibek erdietsitako emaitzen parte bat Dirulaguntzetarako Derrigorrezko Erreserba Funtsan sartu behar dela.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa. Sozietate gardenak

1. Zerga gardentasuneko araubidepekoak izan diren zergaldiei dagozkien sozietate gardenetako likidazio oinarri positiboek, hala nola zergaldi horietakoak izan eta oraindik zergapetzeko dauden gainerako kontzeptuek, garai hartan indarra zuen araubideko arauetara jarraikiz tributatu dute.

2. Aurreko zergaldietan gardenen sailkapena zuten sozietateen kapitaleko akzioen eta partaidetzen eskualdaketan, eskuraketaren balioa denbora horretan eskuratutako gizarte mozkinen zenbatekoan gehituko da, mozkinon banaketa eraginkorrik gabe, bazkideei eskuratzetik eskualdaketarako denboraldian euren akzio edo partaidetzen errenta gisa egotzi bazaizkie.

3. Sozietate horien etekinotako dibidenduek edo partaidetzek, banatu dituen sozietatea zergaldi horretan zerga gardentasuneko araubidepekoa izanez gero, ez dute tributatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arabera, ez eta Sozietateen gaineko Zergaren arabera ere. Dibidendu edo mozkinotako partaidetzen zenbatekoa

ez da sartuko egotzen zaizkien bazkideen akzio edo partaidetzen erosketa balioan. Akzioak edo partaidetzak, egozpena jasan ondoren, eskuratu dituzten bazkideen kasuan, zenbateko horretan txer gutxituko da haien erosketa balioa.

4. Aurreko 3. zenbakian aipatutako mozkinotako dibidenduei edo partaidetzei ez zaizkie atxiki-penak edo konturako sarrerak aplikatu.

5. Ondaren sozietateen araubide berezian tributatzera pasatzen diren sozietateen gardenen kasuan, konpentsatzeko dauden likidazio oinarri negatiboak konpentsatzen ahalko dira sozietate gardenaren epean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 40. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta ondare sozietatearen oinarri positiboaren zati orokorrek edo bereziarekin bat (sozietateak berak aukeratuta).

6. Ezarpen bikoitza saihesteko kenkariak (Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 59., 60. eta 61. artikuluetan ezarriak), kuota nahikorik ez zegoelako aplikatu ez badira, araudi horretan ezarritako epeetan egiten ahalko dira.

Bigarrena. Sozietate gardenen desegite eta likidazioa.

1. Erabakia hartzen ahalko dute haien desegite eta likidaziorako, xedapen honetan aurreikusitako zerga araubidearen bidez, honako beharkezun hauek betetzen dituzten sozietateek:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 95. artikuluen arabera, 2002ko maiatzaren 31 baino lehen amaitutako azken zergaldian sozietate gardentzat hartua izatea, edo garai horretan izaera hori izateko baldintzak betetzea, eta kasu batean zein bestean, desegitea erabakitzen den unera arte mantentzea.

b) 2003. urtean likidazio bidez desegiteko erabaki balioduna hartzea eta erabakiaren ondoren, epe horren ondoko sei hilabeteetan, merkataritzako araudiari jarraikiz beharrezkoak diren egintza edo negozio juridiko guztiak egitea, likidatzeko sozietate horren erregistroko ezabapena lortu arte.

2. Sozietate horien likidazio bidezko desegitea ondoko zerga araubidepekoa izanen da:

a) Salbuetsita egonen dira Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik. Apirilaren 26ko Legegintzako 129/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zergaren testu bategineko 12. artikuluko 1.1 idatz-

zatiko "Sozietateen desegitea" zergagaia da "sozietate eragiketak" kontzeptuari dagokiona.

b) Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga ez da aplikatuko izaera horretako higiezin kideei esleitzen zaizkienean. Geroago higiezin horiek eskualdatzen badira, eskuratze datatzat hartuko da desegiten den sozietateak eskuratu zituenekoa.

c) Sozietateen gaineko zerga desegiten den sozietateari aplikatzeari dagokionez, ez da kontuan hartuko Espainian egoitza duten bazkideei, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, egotzitako ondasun edo eskubideetatik heltzen den errentarik.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gainekoari edo Egoitzarik ez dutenen Errentaren gainekoari dagokionez, desegiten den sozietateen kasuan:

a') Sozietate horren kapitaleko akzio edo partaidetzen erosketaren balioa eta, kasua bada, titulartasun balioa egotzitako zorren zenbatekoari gehituko zaizkio, eta esleitutako mailegu eta diruaren edo azken hau ordezkatzeko duen zenbatekoari kendu.

b') Aurreko a') letran deskribatutako eragiketen emaitza negatiboa izanez gero, errentatzat hartuko da bazkidea pertsona juridikoa bada, eta pertsona fisikoa bada, berriz, ondare gehikuntzat hartuko da. Kasu honetan, esleitutako mailegu, dirua edo azken hau ordezkatzeko duen ez beste aktiboko elementuak diren gainerako erorketa balioa baliogabea izanen da.

c') Aurreko a') letran deskribatutako eragiketen emaitza zero edo positiboa izanez gero, kontsideratuko da ez dagoela ez errentarik ez ondare gehikuntza edo murrizpenik ere.

Emaitza hori zero denean esleitutako mailegu, dirua edo azken hau ordezkatzeko duen ez beste aktiboko elementuak diren gainerakoetan, erosketaren balioa baliogabea izanen da.

Emaitza positiboa izanez gero, esleitutako mailegu, dirua edo azken hau ordezkatzeko duen ez beste aktiboko elementuak diren gainerakoetan, erosketaren balioa izanen da emaitza positibo

hori haien artean zatitzearen emaitza, betiere, sozietatea desegiteko likidazioaren azken balantzetik heldu diren kontabilitateko haien balio garbien proportzioan.

d') Maileguak, dirua edo dirua ordeztu duen beste edozein zeinuak ez diren bazkideari esleitutako elementuen kasuan, kontsideratuko da bazkideak esleipena egin zen egun berean eskuratu zirela.

3. Likidazio bidezko desegite prozesua iraun bitartean, xedapen iragankor honen 1. idatz-zatiko b) letran aipatutako epeetan amaitzen diren zergaldiei dagokionez, bai sozietate gardenek bai haien bazkideek 2002ko abenduaren 31n indarra zuen araudia aplikatzen segituko dute.

Aipatu epea amaitu ondoren bukatzen diren zergaldiei dagokionez, ondare sozietateen araubidea edo araubide orokorra aplikatuko da, beharren arabera.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetu egiten dira Foru Lege honetan ezarritakoaren aurkako maila bereko edo txikiagoako xedapen guztiak, eta bereziki, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko erregelamenduaren 61.5 artikulua (maiatzaren 17ko 165/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia).

Azken xedapenak


Lehenengoa. Erregelamendu bitarteko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege honen garapen eta betearazpenerako behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Indar-hartzea

Foru Lege honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, aurreikusi diren ondorioetarako.

Aurreko lerroaldean agindutakoa deusetan galarazi gabe, Foru Lege honen 45. zenbakia aplikagarria izanen da 2002ko urtarrilaren 1ean hasien diren zergaldietan.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	